

# Subjektu eta objektu markak euskaraz eta gaztelaniaz haur elebakar eta elebidunengan<sup>1</sup>

(Marking of subjects and objects in Basque and Spanish by monolinguals and early bilinguals)

Barreña, Andoni  
Univ. de Salamanca  
Dpto. de Lengua Española  
Fac. de Filología  
Plaza de Anaya, 1  
37008 Salamanca

Zubiri, Juan Joxe  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa  
Filologia eta Literatura Saila  
Campus Arrosadia z/g  
31006 Iruña  
jjzubiri@si.unavarra.es

BIBLID [1137 - 4446 (2000), 12; 69-106]

---

*Ikerlan honetan haur elebakar eta euskara/gaztelania elebidun goiztiarren bi hizkuntzetako ekoizpenetan subjektuak eta objektuak nola markatzen diren adierazten da. Euskaraz aditz iragankorren eta iragangaitzen subjektuak morfologikoki ezberdin markatzeaz gain, aditzean erakusten duten komunztaduran ere ezberdintzen dira, markatzeko modu bietan objektuak aditz iragangaitzetako subjektuak bezala adierazten direlarik. Gaztelaniaz, ordea, mota bateko zein besteko aditzen subjektuak, oro har, ez dira marka morfologikoen bidez bereizten. Hizkuntza bietako emanaldiak aztertu ondoren, jabekuntza elebidunaren hasiera-hasieratik bi kodeak bereizita garatzen direla erakusten dute.*

*Giltz-hitzak: Acusativitatea. Elebitasuna. Ergatibitatea. Gramatika-bereizketa. Hizkuntza-jabekuntza. Komunzta -dura. objektua. Subjektua.*

*En este trabajo se analizan el modo de marcar los sujetos y los objetos en las producciones lingüísticas de niños monolingües y bilingües tempranos en euskera y castellano. En euskera, además de ser diferentes las marcas morfológicas de los sujetos de verbos transitivos e intransitivos, también se diferencian en la concordancia verbal que realizan. En cambio, los objetivos se marcan morfológicamente como los sujetos de los verbos intransitivos en ambos casos. En castellano, por el contrario, no se diferencian los sujetos mediante marcas morfológicas. Tras analizar las producciones infantiles en ambas lenguas, se puede afirmar que desarrollan diferenciadamente los códigos gramaticales desde el inicio del proceso de adquisición bilingüe.*

*Palabras Clave: Acusatividad. Concordancia. Bilingüismo. Ergatividad. Separación gramatical. Adquisición de lengua. Objeto. Sujeto.*

*Les auteurs analyseront la marque de sujets et d'objets chez des personnes monolingues et chez des basques espagnols bilingues. On sait qu'au niveau NP, les sujets des verbes "ergatifs" basques se terminent par -k, cependant que les objets et également les sujets des verbes intransitifs portent la marque ø, qui correspond au cas absolu. Les morphèmes de sujet présentent également des formes différentes avec des verbes transitif et intransitifs. En espagnol, d'autre part, sujets et objets ne se différencient pas dans la morphologie. Les morphèmes de sujet sont identiques avec des verbes transitifs et intransitifs et les objets ne se reflètent pas dans le système verbal. Après avoir analysé les productions dans les deux langues, les auteurs démontrent que les deux codes se développent séparément depuis le commencement.*

*Mots clés: Accusatif. Concordance. Bilinguisme. Ergativité. Séparation grammaticales. Acquisition de langue. Objet. Sujet.*

---

<sup>1</sup> Ikerlan hau, neurri batean bederen, Espainiako MEC-eko DGICYT erakundearen laguntzari esker burutu ahal izan dugu, PB98-0239 proiektuaren barnean. Eskerrak eman nahi dizkiegu proiektukide guztiei.

## SARRERA

Hizkuntzaren jabekuntzan bi hizkuntza txiki-txikitatik aldi berean ikasten duten haurren garapenean aurki daitekeen arazorik eztabaidagarrienetakoa hau da: ea gramatika sistemek hasiera-hasieratik bakoitzak bere aldetik ibilbide berezia jarraitzen duten ala, alderantziz, hasiera batean sistema bakar batetik abiatuz haurrek bi hizkuntzaren sistemak bereiztera igarotzen diren.

Ikertzaileen artean erantzun franko, eta zenbaitetan kontrajarriak ere bai, jaso ditu planteamendu honek. Badira, batetik, gramatikaren garapenaren hasieran bereizketarik gertatzen ez dela diotenak. Iritzi honen alde agertzen dira, esate baterako, Volterra eta Taeschner (1978) eta Taeschner (1983). Beren lanetan, italiaradun eta alemandun zenbait haur elebidun familiarren hizkuntzaren garapen prozesua behatu ondoren, hiru aroko garabidea proposatzen dute. Euren interpretazioaren arabera, hasiera batean haur elebidunek bi hizkuntzetatik jasotako hitzekin eraikitako sistema lexiko bakarra baino ez dute. Hurrengo aroan, oster, bi sistema lexikoak ezberdintzen dituzte baina oraindik ere gramatika sistema bat besterik ez dute, hau da, sintaxi-arau berak erabiltzen dituzte bi hizkuntzetan. Hirugarren aroan, aitzitik, bi hizkuntza sistemak txoil bereizten dituzte, bai lexiko arloan zein gramatikarenean.

Esaterako, Redlinger eta Park (1980) ikertzaileek 2;00 eta 2;08 adineko haur elebidunen ekoizpenak arakatu ondoren honako hau da diote: jabekuntzaren garapenean zehar hizkuntza sistemen nahasketa, gramatikari dagokionez, gutxitu egiten dela bi sistemak guztiz berezi arte. Autore hauek, haur elebidunek bi gramatika sistemak bereizteko duten gaitasuna ez dute zalantzan jartzen, baina desberdintze horretara iristeko, bateraketa aro batetik igaro behar dutela diote.

Aurreko ikertzaileek hartutako teoriak zalantzan ipiniz, Vila eta Cortés (1991) kataluniarrek, katalana eta espainiera batera ikasten diharduten haurren ekoizpenak behatu ondoren, zalantzan jartzen dute haur elebidunek igaro behar omen duten gramatika sistema bakarreko aro hori baden. Ikertzaile hauek, beraiek jaso dituzten datuen arabera, aro hau, izatekotan, oso larria izan behar duela diote, eta beraiek ez dutela halakorik aurkitu aztertutako haurrengan.

Beste ikertzaile batzuek, aldiz, bi gramatika sistemen bereizketa jabekuntzaren garapenean hasiera-hasieratik gertatzen dela esaten dute. Ildo honetatik abiatzen dira Padilla & Liebman (1975), Padilla & Lindholm (1978), Slobin (1985), Meisel (1989, 1994), De Houwer (1990, 1995) eta beste hainbat.

Meisel-ek (1989), frantsesa eta alemanera ikasten diharduten haur elebidun familiarren ekoizpenak arakaturik, bi gramatika sistemen bereizketa hasiera-hasieratik gertatzen dela dio. Dena dela, ikertzaile honen arabera, baliteke lexiko bakarreko aro bat ere izatea, alabaina gramatika garatzen hasi aurretik kokatuko litzateke aro hori. Bere ustez oso nabaria da bi gramatika sistemak garatzen direnean gertatzen den bereizketa.

De Houwer-ek (1990) haur elebidunen datuak behaturik, sistema bateratuaren aldeko frogarik ez duela bildu eta biltzea zaila litzatekeela diosku. Horretarako, oso egitura ezberdinak dituzten hizkuntzak ikasten diharduten haurrek aztertu beharko gaituzkeela dio.

Euskal Herrian gertatzen diren garapen elebidunez ez da gehiegi aztertu orain dela gutxi arte. Meisel & Mahlau (1988) ikertzaileek, espainierak eta euskarak edo frantsesak eta euskarak dituzten tipologia arloko bereizketa handiak ikusirik, Euskal Herriko haur elebidunen jabekuntza garapenak arakatzea proposatu zuten. Ildo honetatik abiatu dira azken urteotan Meisel (1994), Idiazabal (1995), Barreña & Almgren (1999), Ezeizabarrena (1996), Elozegi (1998), Barreña (1997a, 1997b), Barreña & Idiazabal (1997) ikertzaileak espainiera eta euskara aldi

berean ikasten diharduten haur elebidunen gramatika arloko hainbat kategoriaren garapena aztertzean. Guztiok bat datoz kode bereizketa fenomenoak ikusi dutela esatean, hots, haur elebidunek euskararen eta espainieraren gramatikak berezita garatzen eta ikasten dituztela baieztatzean, eta ez dagoela, hortaz, hainbat ikertzailek defendatzen duten bateraketa gerta-karirik.

Meisel-ek (1994) ezeztapenaren kategoria aztertu du. Idiazabalek (1995) eta Barreñak (1997a, 1997b), ostera, izen sintagmarena eta determinatzaileena. Ezeizabarrenak (1996), berriz, aditz morfologiarena. Elosegik (1998) espainieraren preposizio sistema eta euskararen deklinabidearena behatu ditu. Barreña & Almgren-ek (1999) eta Barreña & Idiazabalek (1997) subjektu eta objektuen markakera. Gehienetan, ikerketa hauetan BUSDE-HEGEHJ<sup>2</sup> proiektuko (Mahlau 1994) haur baten edo biren ekoizpenak aztertu dituzte.

Guk, aitzitik, lan honetan BUSDE-HEGEHJ proiektuko haur elebakarraz eta bi elebidunetz gain, Zubirik buruturiko bi haur euskaldun elebakarren datuei ere begiratu diegu (Zubiri 1997). Guztira, bada, hiru haur euskaldun elebakar eta bi haur euskaldun gaztelaniadun elebidunen ekoizpenak arakatuko ditugu. Araketa, gutxi gorabehera, hurrek 1;06 (urte bat eta sei hilabete) adina dutenetik 3;00 adina duten arte luzatu dugu, hilero haur bakoitzeko 30-45 minutuko bideo grabaketa bat edo bi begiratu ditugarik.

## 1. AZTERTUTAKO HIZKUNTZA ARLOA

Arlo honetan lanari ekiteko, bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) subjektuak eta objektuak nola markatzen diren arakatuko dugu.

Euskarak, batetik, aditz iragangaitz eta iragankorren subjektuak morfologikoki ezberdintzen ditu. Iragangaitzak absolutiboaren bidez markatzen ditu, -ø markaz hain zuzen ere (1), eta iragankorrak, ostera, ergatiboaren bidez, -k markarekin (2)<sup>3</sup>.

- |     |   |                                      |           |
|-----|---|--------------------------------------|-----------|
| (1) | gizon-a-ø<br>gizon-det-abs<br>subjektua | etorri da                            |           |
| (2) | gizon-a-k<br>gizon-det-erg<br>subjektua | seme-a-ø<br>seme-det-abs<br>objektua | ekarri du |

Kontuan izan beharko dugu, berez iragangaitz diren hainbat aditzekin subjektuak iragankor balira bezala markatzen direla (Lafitte 1944). Aditz iragangaitz ezerगतiboez dihardugu. Horrelakoak dira, esaterako, ondoko hauek: *jokatu*, *jolastu* eta *irakin*. Objekturik ez duten arren, subjektua ergatiboaren bidez gauzatzen dute (3).

- |     |   |            |  |
|-----|---|------------|--|
| (3) | gizon-a-k<br>gizon-det-erg<br>subjektua (S) | jolastu du |  |
|-----|---|------------|--|

<sup>2</sup> Ikerlan proiektu hau, HEGDE-BUSDE, 'Haur Euskara-Gaztelania Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza' eta 'Bas-kisch und Spanisch: Doppelter Erstspracherwerb - Euskara eta Espainiera: Lehen Bi Hizkuntzen Jabekuntza', haur euskaldun elebakar bat eta hiru haur euskaldun-espainieradun datu jasotze longitudinalak da. (Mahlau 1994).

<sup>3</sup> Erabiliko ditugun laburdurak honako hauek dira: abs (absolutiboa), akus (akusatiboa), det (determinatzailea), erg (ergatiboa), nom (nominatiboa), O (objektua), pl (plurala), S (sujetua) eta s (singularra)

Sintagmek marka morfologikoak (-ø nahiz -k izan, aditz motaren arabera) hartzeaz gain, aintzat hartu behar dugu subjektuek aditz laguntzailearekiko komunztadura egiten dutela. Sistema honen bidez, aditz iragankorretan, bai eta iragankortzat hartzen direnetan ere, subjektuen morfemak atzizkien bidez adierazten dira aditzean, orainaldiko aditzetan behintzat (4). Subjektu iragangaitzen morfemak, aldiz, aurrizkien bidez adierazten ditugu (5).

- (4)      ni-k                      zu-ø                      ekarri      z-aitu-t  
           ni-erg                      zu-abs                                      O2s - S1s  
           subjektua (S)      objektua (O)
- (5)      ni-ø            etorri    n-aiz  
           ni-abs                      S1s  
           subjektua (S)

Argiago ikusteko ondoko taulan azaltzen dugu zehazkiago aditz iragangaitzen subjektuei dagozkien markak aurrizkien bidez gauzatzen direla, objektuei dagozkienak bezalaxe. Aditz iragankorren subjektuei dagozkien markak, ordea, atzizkien bidez gauzatzen dira (1. taula).

1. taula: subjektuei eta objektuei dagozkien markak orainaldiko aditzetan

subjektu iragangaitzen eta objektuen markak	subjektu iragangaitzen adibideak	objektuen adibideak	subjektu iragankorren markak	subjektu iragankorren adibideak
n-	n-aiz	n-auzu	-t	du-t
z-	z-ara	z-a-it-u	-zu	du-zu
d-	d-a	d-u	-ø	du-ø
g-	g-ara	g-a-it-u	-gu	du-gu
z- + -te	z-are-te	z-a-it-uz-te	-zue	du-zue
d-	d-ira	d-it-u	-te	du-te

Hauetz gain, aditz iragangaitzen subjektuei eta objektuei, pluralekoak badira edo singularrereko *zu* izenordainari badagozkie, pluralgilearen marka ezartzen zaie gehienetan. Horrela, 1. taulan objektuen adibideak zutabean pluralgile hau *it* dela ikus daiteke.

Alabaina, iraganaldietako aditzetan sistema hau aldatu egiten da. Oro har, aditz iragangaitzen subjektuei eta objektuei dagozkien markak berberak dira, baina aditz iragankorretako subjektuei dagozkienak bikoiztu egiten dira, objektuaren pertsonaren arabera (2. taula). Horrela, azpimarratu behar dugu 2. taulan agertzen diren aldaerak 1. eta 2. pertsonari dagozkienak direla; baina objektua 3. pertsona baldin bada, subjektuen markak aurrizkien bidez gauzatzen dira, eta aurrizki hauek aditz iragangaitzen subjektuei eta objektuei dagozkien antzekoak dira.

2. taula: subjektuei eta objektuei dagozkien markak iraganaldiko aditzetan

subjektu iragangaitzen eta objektuen markak	subjektu iragangaitzen adibideak	objektuen adibideak	subjektu iragankorren markak (objekt. 1. eta 2. perts.)	subjektu iragankorren adibideak
n-	n-intzen	n-induzun	-t/-da-	zintu-da-n
h-	h-intzen	h-induen	-a/-na-	nindu-(n)a-n
z-	z-en	z-uen	∅	nindu-∅-en
g-	g-inen	g-intuen	-gu	zintu-gu-n
z-	z-inen	z-intuen	-zu	nindu-zu-n
z- + -tez-ine-te-n	z-intuz-te-n	-zue		nindu-zue-n
z-	z-iren	z-ituen	-te	nindu-te-n

  

subjektu iragankorren markak (objektua 3. pertsona denean)	subjektu iragankorren adibideak (objektua 3. pertsona denean)
n-	n-ion
h-	h-ion
z-	z-ion
gen-	gen-ion
zen-	zen-ion
zen- + -te	zen-io-te-n
z- + -te	z-io-te-n

Bestetik, gaztelaniak ez ditu aditz iragangaitzei eta iragankorrei dagozkien subjektuak ezberdintzen, morfologiaren ikuspuntutik bederen (6-7). Subjektu biak inolako markarik gabe gauzaten dira eta biek dute, oro har, egongune bera. Nolanahi ere, aditzaren aurrea ez da subjektuaren egongune bakarra, gauza jakina baita hainbat inguru berezitan gaztelaniazko subjektua aditzaren ostean joan daitekeela (8-9), baina horrela ere ez dira ezberdintzen aditz iragangaitzen eta iragankorren subjektuak.

- (6) el hombre viene  
det-gizon dator  
S  
gizona dator
- (7) el hombre trae a-l hijo  
det-gizon dakar akus-det seme  
S O  
gizonak semea dakar
- (8) la manzana la he cogido yo  
det-sagar hura-akus dut hartu ni-nom  
O (O) S  
sagarra nik/neuk hartu dut
- (9) hoy he venido yo  
gaur naiz etorri ni-nom  
S  
gaur etorri naiz ni

Hauxe da hain zuzen ere, subjektuak eta objektuak markatzeko modu nagusia: lekunea. Eta euskara eta gaztelania ezberdintzen dituen bide nagusietariko bat da, nabarmenatarikoa, beharbada. Gainera, gaztelaniaz, jakina den bezala, objektuek ez dute aditzean inolako az-tarna zuzenik uzten; euskaraz, berriz, pertsonen arabera komunztadura beharrezkoa dute, salbuespenak salbuespen. Lehentxeago, 1. eta 2. tauletan aipatu ditugun objektuen markaz gain, beste hainbat aditzetan agertzen diren objektu morfemek (*pluralgile* deiturikoe) ere ez dute gaztelera-azko aditzetan inolako islarik (-zki- [zaizkit, zaizkizu, dizkit,...], -it- [ditut, dituzu, ditiat,...], -z- [dauzkat, nebazan,...], -tza- [daramatzat, dakartzat,...], e.a.).

Dixonek (1994) dioenez, munduko hizkuntzak aditz iragangaitzen subjektuak, aditz iragankorren subjektuak eta objektuak bereiztean bi bide hauta ditzakete. Batean, euskarak egiten duen moduan, aditz iragangaitzen subjektuak eta objektuak modu berean markatzen dira, absolutiboaren edo NOR kasuaren bidez; aditz iragankorrenak, ordea, ezberdindu egiten dira, ergatiboaren edo NORK kasuaren bidez markatuz. Bestean, gaztelaniak egiten duen moduan, aditz iragangaitzen subjektuak eta aditz iragankorren subjektuak modu berean markatzen dira, nominatiboaren bidez; objektuak, aldiz, ezberdindu egiten dira, akusatiboa erabiliz (3. taula).

3. taula: aditz iragangaitzen eta iragankorren subjektuen eta objektuen kasu ezberdinak

	aditz iragankorren subjektua	aditz iragangaitzen subjektua	objektua
hizkuntza akusatiboak	nominatiboa	nominatiboa	akusatiboa
hizkuntza ergatiboak	ergatiboa	absolutiboa	absolutiboa

Aipatutako autorearen sailkapenaren arabera, euskara bezalako hizkuntzak, hizkuntza ergatiboak direla esaten da; gaztelania bezalakoak, ostera, hizkuntza akusatibotzat hartzen dira.

## 2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Gure lehenengo helburua eta helburu nagusia zera da, aztertu nahi ditugun unitateak ardatzat hartuz eta haur elebarraren ekoizpenak nahitaezko erreferentziatzat edukiz, haur elebidunengan gramatika arloko kode bereizketa edo kode bateraketa gertatzen den begiratzea, hots, haurrek gramatika garatzen dutenean ea elebidunek egiten duten garapena elebarraren modukoa den edo, garapen elebiduna dela-eta, bi hizkuntzen arteko eraginik, nahasterik, interferentziarik,... gertatzen denentz behatzea. Horretarako, elebarraren eta elebidunen garapenak aztertu eta erkatu nahi ditugu.

Aztertu behar ditugun unitateei zuzenean atxikiz, gure ustez, haur elebidunek ikasten diharduten hizkuntza bakoitzean elebarraren besteko gaitasuna izango dute gramatika garatzen hasten diren une beretik. Elebarraren moduen garatuko dute, beraz, euskararen gramatika zein gaztelaniarena. Ez dugu uste, beste hainbat datu ikusi ondoren, interferentziarik edo kode bateraketarik ikusiko dugunik bi hizkuntzetako gramatikak garatzen dituztenean.

Garapeneko une batean gramatika bakarria izateak hizkuntza bietan subjektuak era berean markatzen direla esan nahiko luke, subjektuak bereiziz, euskaraz desberdintzen diren bezalaxe, edo bereizi gabe, gaztelaniaz egiten den bezalaxe. Alabaina, kontuan izan behar dugu, bateraketa fenomenoak gerta dadin gramatikaren garapena abiatuta izan behar duela; aldi aurremorfologikoan, gramatikarik ez duten aroan alegia, ezin baitaiteke bateraketa/bereizketa fenomenorik atzeman.

### 3. CORPUSA ETA METODOLOGIA

Ikerlan honetan hiru haur euskaldun elebakerren eta bi haur euskaldun gaztelaniadun elebidunen ekoizpenak arakatuko ditugu. Haurrak 1;06 adina zutenetik, gutxi gorabehera, hamabostero bidez grabatuak izan dira. Saiok etxeko berezko giroan grabatu dira eta 30-45 minutu inguruko iraupena dute. Saioetan haurrak senideekin eta lagunekin agertzen dira. Gure azterketari dagokionez, bi elebakerren kasuan 3;00 arte eta gainerakoetan 3;06 adina izan duten arteko ekoizpenak baino ez ditugu arakatu, datu-bilketa 5;00 adina izan duten arte luzatu den arren.

Bost haurretariko hiruren datuak, *Adquisición del euskera y del castellano como primeras lenguas por niños bilingües vascos* proiektukoak dira. Datu bilketa hau Hanburgoko eta Euskal Herriko Unibertsitateko BUSDE eta HEGEHJ taldeek egin zuten (Mahlau 1994). Beste bienak, ordea, *Bilingüismo y adquisición del lenguaje: contacto y diferenciación de códigos lingüísticos* proiektuaren barnean erantsitakoak dira (Zubiri 1997).

Hiru haur bizkaitarrak diren arren, bik baino ez dute bizkaiera garatu, Berrizkoek alegia. Beste haur bizkaitarra hurbilago dago nafarreratik eta euskara estandarretik bizkaieratik baino. Gainerako bi hurrek, Goizuetakoak izanik, nafarrera garatu dute. Edozelan ere, haur guztiengan nabari da, gutxi edo gehiago, euskara estandarren eragina.

Haur elebakerrek euskara baino ez dute garatu, gutxienez gure ikerlanak irau duen al-dian, senitartean zein inguruan entzun duten hizkuntza hauxe izan da eta. Haur elebidunek, ostera, txiki-txikitatik euskara zein gaztelania jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi izan diren lagunengandik. Bi haur elebidunek bi hizkuntzak era orekatuan garatu dituztela esan dezakegu. Horrela, haur elebaker nahiz elebidunen hizkuntzen garapen morfosintaktikoa neurtzeko baliapidetzat EBBL-ak (*Esaldiaren Bataz Besteko Luzerak*) erabili ditugu (ikus 4. taula). EBBL neurketa haurren garapen morfosintaktikoa adierazten duen indizea da eta lorturiko hizkuntza garapenaren adierazletzat hartu izan da jabekuntza ikerketetan (Brown 1973, Idiazabal 1991). Horretarako, haurrak jarraian ekoitziriko ehun esaldi morfologikoki eta lexikoki neurtu eta bataz bestekotu egiten dira, EBBL indizea lortuz. Gaztelaniarako zein euskararako sistema bera erabili denez, erkarriak dira, gure ustez, haur elebidunek izandako garapenak bi hizkuntzetan. Datuok erakusten diguten legez, hizkuntza biak era paralelo samarrean garatzen dituztela esan dezakegu.

Aztertu ditugun datuak hurrek ekoitziriko guztiak izango dira, beraiekin hitz egiten eta jolasten duten lagun en imitazio zuzenak edo errepikapenak izan ezik. Ohikoa den bezala, ulergaitzak diren esaldiak ez ditugu kontuan hartu.

4. taula: haur elebidunen EBBL balioak16

adina	Mikel euskara	Mikel gaztelania	Peru Euskara	Peru gaztelania
1,07	1,08	1,17		
1,09	1,35	1,50		
adina	Mikel euskara	Mikel gaztelania	Peru Euskara	Peru gaztelania
2,00	2,53	2,46	1,25	1,47
2,03	2,76	3,08	1,62	1,98
2,06	2,99	3,08	2,61	2,67
2,09	3,66	3,55	3,25	2,38
3,00	4,40	4,63	1,98	3,50
3,03	5,37	4,63	3,75	4,26
3,06	5,09	5,28	5,13	4,73

Bestalde, subjektuen eta objektuen markez dihardugunez, aditzen batez ekoitziriko esaldietara soilik mugatu da gure araketa, gramatika kategoria hau euskaraz, jakina den bezala, jokatua ala jokatugabea izan daitekeelarik.

#### 4. EUSKARAZKO DATUAK

##### 4.1. Aditz iragangaitzen subjektuak

Aditz iragangaitzen subjektuak euskarazko haur hauen ekoizpenetan, ohi bezala, absolutibo kasuan agertzen dira. Horrelaxe ikusi dute Barreñak (1995), Oitz elebakarraren eta Mikel eta Peru elebidunen ekoizpenak aztertzerakoan, Barreñak & Almgrenek (1999), Mikel elebidunaren eta Oitz elebakarrarenak arakatzean, Ezeizabarrenak & Larrañagak (1996), Mikel elebidunarenak miaztean, Elosegik (1996) Peru elebidunarenak azaltzean, eta Zubirik (1997), Egoitz eta Bianditz elebakarren datuak aurkezteko garaian. Bilduriko ekoizpen gehienetan, bada, aditz iragangaitzen subjektuak absolutiboaren markarekin ekoizten dituzte, hots, -ø markarekin (10-19).

- (10) bulua [burua] non da? (E 2;01)
- (11) motoa exin da xa(r)tu (E 2;03)
- (12) hemen da kut(x)area (B 1;07)
- (13) bizik(l)eta han da (B 1;11)
- (14) azala izan da (O 2;00)
- (15) gu hara behera juen (O 2;01)
- (16) hemen da(g)u petetie (M 1;10)
- (17) Valen han da(g)u (M 2;04)
- (18) hau da tutua (P 2;03)
- (19) ni naiz okina (P 2;10)



Aditz irangaitzen subjektuak markatzeko kasua absolutiboa denez eta honen marka - $\emptyset$  denez, zaila da bereizten garapenaren zein unetan egiten dituzten hurrek markarik gabeko izen sintagmak eta noiz jabetzen diren absolutiboaren markaz. Metodologikoki kasu marka honen erabilera dela eta, pentsa daiteke, alde batetik, beste kasu batzuen marken erabilera hasten denetik aurrera dela emankorra, oposizioz bataren eta bestearen artean gutxieneko kontrajarren bat ezartzen denean alegia, eta beste aldetik, absolutiboak bete ditzakeen bi funtzio nagusiak (subjektua eta objektua) agertzen direnean.

Nolanahi ere den, guri orain dagokigun gaiari atxikiz, nabarmena da hurrek aditz irangaitzen subjektuak ekoizten dituztenean absolutiboa dela nagusi, gutxienez kasu markak erabiltzen hasten direnean.

Esate baterako, Mikel haur elebidunaren 3;00 arteko ekoizpenak begiratu ondoren, 300 adibide inguru bildu ditugu eta bat bakarra ikusi dugu absolutiboari ez dagokion kasu marka batez. Adibide hau ergatiboaren kasu markarekin ekoitzi du Mikelek (20), baina azpimarragarria iruditzen zaigu adibide hau 3;00 adinarekin gauzatua dagoela esatea, garai horretarako jabetu baita kasu honetaz.

(20) \*nik ibili naz (M 3;00)

Oitz elebakarraren 3;00 arteko ekoizpenetan ere bildu ditugu ergatiboaren markarekin gauzaturiko aditz irangaitzen bi subjektu (21), guztira 400 baino gehiago egiten dituen arren.

(21) \*eta nik etorri eta etorri (O 2;08)

Egoitz eta Bianditz elebakarrek ere erabili dute ergatiboaren marka lantzean behin aditz irangaitzen subjektuen bat markatzeko, zehazkiago esateko, mota honetako bina ekoizpen ediren daitezke 305 eta 294 adibidetatik, hurrenez hurren (22-23).

(22) \*Egoitzek eta Unai (E 2;03)

(23) \*Jon Na(r)ba(r)tek, eh, eh, ez zen (e)to(r)ri (B 2;11)

Peru elebidunaren ekoizpenetan, ostera, Elosegik (1998) ere aurkitu du halakorik (24-25). Badirudi haur honengan horrelakoen maiztasuna handiagoa dela besteengan baino.

(24) \*nik oso handia naiz eta zuk oso txikia zara eta nik montatzen naiz (P 2;09)

(25) \*holako baten lñigok etorri zen korrika (P 3;06).

Salbuespenak salbuespen, nabarmena da, beraz, haur guztiek hasiera-hasieratik jabetu direla aditz irangaitzen subjektuak markatzeko eraz, hots, NOR kasuaren edo absolutiboaren erabileraz, subjektu hauek markatzerakoan akats bezala har daitezkeen ekoizpenak ez dira ehuneko batera iristen eta.

## 4.2. Aditz irangaitzen subjektuak partitiboz

Hainbat aditz irangaitzen subjektu partitiboarekin ere gauza daitezke euskaraz. Partitiboaren -(r)ik markarekin jantziriko subjektuak, batik bat, ezezko eta galderazko esaldietan aurki ditzakegu.

Guk aztertutako haurren ekoizpenetan partitiboaren erabilera -a(k) absolutiboarena baino beranduago agertzen dela ikusi dugu. Horrela, morfologiaren garapenaren hasieran NOR kasuan edo absolutiboan -a mugatzailearen erabilera nabarmena denean, haurrak ez dira gai oraindik partitiboa gauzatzeko (26-28).

- (26) zarata ez! (M 2;01)
- (27) ez da(g)u zezena (O 2;00)
- (28) ez da ilea (E 2;04)

Hasierako une horietan erabiltzen ez badute ere, bospasei hilabete geroago hasten dira partitiboa duten markak ekoizten (29-31).

- (29) hemen ez da(g)u lekurik (M 2;06)
- (30) ez da(g)u beste kotxerik (O 2;05)
- (31) ez da atera ontto(ri)kan (B 2;11)

Sarrixeago ikusiko dugun moduan, partitiboaren erabilera, absolutiboaren erabilerari dagokion bezalaxe, ez da aditz iragangaitza daramaten subjektuetara bakarrik mugatzen, objektuak ere maiz ekoizten baitira atzizki honekin jantzirik. Hortaz, aurreraxeago itzuliko gara gai honetara atal hau osatuz.

### 4.3. Aditz iragankorren subjektuak

Aditz iragankorrez osatutako esaldiek izen sintagma subjektua agirian baldin badaramate, beharrezko dute NORK edo ergatibo kasuaren *-k* markarekin hornituak egotea. Haurren garapeneko aditz iragankorren subjektuen itxurari begiratzeko badiogu, ordea, *-k* markaz gauzatuak eta inolako markarik gabe eginikoak aurki ditzakegu, bietako adibide-kopuruak 5. taulan bildu ditugularik. Taula honetan haurrek aditz iragankorren batez lagundurik ekoizten dituzten izen sintagma subjektu guztiak jaso ditugu adinaren arabera taxuturik.

Haurrek aditz iragankorren subjektuak gauzatzean ergatiboaren markaz nola jabetzen diren zehazteko, taula honetako datuak orokorrean behaturik, gure ustez behintzat, hirualdi bereiz daitezke ergatiboaren markaren erabileraren garapenean, hasierako ez erabileratik erabilera egoki bihurtzen den arte.

1. Lehenengo eta behin zera dakusagu, haur guztiak hasieran ez dutela behin ere NORK edo ergatiboaren marka gauzatzen, Bianditz izan ezik (grabaketekin hasi zireneko, 1;06 adinarekin, ergatibodun sintagmak ekoizten baitzituen). Horrela, Egoitzek 2;02 adina duen arte ez du aditz iragankorren subjekturik *-k* markarekin gauzatu, nahiz hainbat esalditan beharrezkoa izan duen (32). Oitzek ere ez du gauzatzen ergatiboaren marka 2;00 adina duen arte, zortzi alditan gauzatu behar zukeen arren (33). Mikelen ergatiboaren lehen ekoizpena 2;02 adina duenean egiten duen arren, lehenago bost txandatan ez du halakorik egin (34). Peruk ez du 2;05 adina duen arte ergatiboaren marka ekoizten, lehenago hiru aldiz horrela egin behar zukeen arren (35).

5. taula: euskarazko aditz iragankorren subjektuak

	Egoitz elebakarra		Bianditz elebakarra		Oitz elebakarra		Mikel elebiduna		Peru elebiduna	
	Ø	-k	Ø	-k	Ø	-k	Ø	-k	Ø	-k
1,05-1,11	3	-	14	17	8	-	1	-		
2,00			7	6	6	3	2	-		
2,01	1	-	12	13	2	6	2	-	1	-
2,02	2	4	3	11	12	5	3	1		
2,03	1	13	5	15	1	8	9	-	1	-
2,04	2	19	16	60	-	39	3	6	1	-
2,05	-	12	8	29	1	27	-	3	2	5
2,06	1?	32	11	23		36	2	9	4	3
2,07	2	24	13	21		10	1	7	5	4
2,08	2	17	8	15		33	-	11	4	8
2,09	1	28	17	40		16	-	19	3	17
2,10	4	41	14	28		37	5	3	14	15
2,11	3	37	13	42		16	-	21	4	17
3,00	2	14	3	11		23	1	30	2	7
3,01									1	7
3,02									1	13
3,03									3	13
3,04									3	15
3,05									3	10
3,06									-	28

Oitzek ere ez du gauzatzen ergatiboaren marka 2;00 adina duen arte, zortzi alditan gauzatu behar zukeen arren (33). Mikelen ergatiboaren lehen ekoizpena 2;02 adina duenean egiten duen arren, lehenago bost txandatan ez du halakorik egin (34). Peru ez du 2;05 adina duen arte ergatiboaren marka ekoizten, lehenago hiru aldiz horrela egin behar zukeen arren (35).

- (32) *Mintzaideak*: "nik, nik, nik" esan zuk!  
*Haurrak*: ni, ni, ni (*bere burua seinalatuz*) (E 1;11)
- (33) Jurgi atara<sup>4</sup> (O 1;07) ('Jurgi-atara' beharko luke)
- (34) Andoni(-k) jan dau (=du) (M 2;01)
- (35) ni(-k) (a)pu(r)tu (P 2;01)

Aldi honetan haur hauek gauzatzen dituzten aditz iragankorren subjektuek ez dute inolako kasu markarik eta itxuraz, beraz, NOR edo absolutibo kasuan ekoizti dituztela dirudi. Baina kontua da aldi honetan beste kasuen markarik ere ez dutela erabiltzen. Pentsatzekoa da, hortaz, morfologiaurreko aldia dela hau, eta besteak beste, kasu markarik ez ekoiztean, NOR edo absolutiboa ere ez dutela ekoizten. Esan daiteke, ondorioz, markarik gabekoak lirateke-

<sup>4</sup> Bizkaieraz *atera* aditza iragankorra da beti.

la aipatutako subjektu hauek, aro honetan haurrak ez baitira oraindik ageriko marka morfologikodun sintagmarik gauzatzeko gai izaten.

Bianditzek, ostera, grabaketak 1;06 adinarekin hasi ziren une beretik darabil NORK edo ergatiboaren kasu marka aditz iragankorren zenbait subjektu gauzatzean. Alabaina, ez da hori darabilen kasu marka bakarra. Badirudi, beraz, une honetan, grabaketak hasi direnean, alegia, aro morfologikoan sartua dagoela, hots, hasia dagoela morfologiako hainbat ezaugarri garatzen. Bianditzen corpusaren araketan, beraz, ez dugu morfologiaurreko aldiaren daturik, eta bere ekoizpenetan horregatik ezin dugu ikusi, hain zuzen ere, ergatibo markarik gabeko aroa.

Laburbidurik, bada, badirudi haur elebakarrek zein elebidunek, euskararen garapenean zehar badutela morfologiaurreko aroa, hots, morfologiarik erabiltzen ez duten aldia, eta une horretan ez dutela kasu markarik erabiltzen, eta beraz ez dutela NORK edo ergatiboaren kasu marka gauzatzeko. Nolanahi ere, argi dago une honetako aditz iragankorren subjektuak ez daudela NOR edo absolutiboarekin eraikiak, markatu gabeak baizik, morfologiaurreko aro horretan baitaude. Gainera, jokabide honetan ez dira elebakarrak eta elebidunak bereizten.

2. Bigarren aldi batean, haurrek NORK edo ergatiboaren kasu marka erabiltzen hasten dira: Oitz 2;00 adinarekin (36), Egoitz 2;02 adinarekin (37), Mikel 2;02 adinarekin (38), eta Peru 2;05 adinarekin (39). Esan dezagun, bestalde, Bianditz 1;06 adinarekin hasi dela ergatiboa ekoizten (40), guk bildu ditugun datuen arabera behinik behin.

- (36) berak badaki zubi-a e(g)i-ten (O 2;04)
- (37) eta itxi (eg)in do (=du) Egoitzek (E 2;03)
- (38) nik dekat hemen (M 2;04)
- (39) nik eman behar diot (P 2;05)
- (40) Bian(d)itzek bota (B 1;08)

Baina bigarren aldi honetan haur guztiek sarritan uzten dute NORK edo ergatiboaren kasu marka ekoizti gabe.

Onartzen badugu haurrek zuzen darabiltela ergatiboaren kasu marka berau erabili behar harko luketen inguruetako %90 aldiz gauzaten dutenean, bigarren aldi hau ergatiboaren markaren ekoizpenaren hasieratik erabilera egokira arte luzatuko litzateke. Hurrez haur honela banatzen da denboran zehar bigarren aldi hau: Egoitzen kasuan 2;01etik 2;03ra, Oitzeanean 2;00tik 2;03ra eta Mikelenean 2;02tik 2;07ra. Perurenean eta Bianditzenean 5. taulako datuak ikusirik hain argi ez badaude ere, eta geroxeago azalduko ditugunak kontuan izanik 2;05etik 2;11ra eta 1;06tik 2;02ra luzatzen dela esango dugu.

Bigarren aldi honen hasieran lantzean behin baino ez dute ergatiboaren marka gauzaten eta badirudi erabileraren maiztasuna poliki-poliki handitzen doala aldia igaro ahala. Nolanahi ere, aro honetan nabariak dira haur guztiengan markarik erakusten ez duten adibideak (41-45).

- (41) xexena(k) mu (E 2;03)
- (42) Bia(nd)i(t)z(ek) bota (B 1;08)
- (43) inor(k) ez kendu bere gol<sup>5</sup> (O 2;02)

<sup>5</sup> Gol hitza haur hizkerakoa da Oitzen ekoizpenetan, horregatik ez du -a artikulurik. Borobila den edozer gauza adierazten du; pasarte honetan, *pilota*.

(44) Ana(k) emo(n) (d)ozta (=dit) (M 2;07)

(45) ama(k) hemen da(u)ka (P 2;07)

Aitortu behar da, bigarren aldi honetan haurren artean badirela zenbait desberdintasun, baina desberdinketa marrak ez dituela elebidunak eta elebakarrak bereizten. Badirudi gizabanakoei zor zaizkien desberdintasunak direla. Horrela, adibidez, Egoitz elebakarraren joera eta Mikel elebidunarena antzekoak dira, ergatiborik gabeko adibideak, bigarren aldi honen amaieran badiren arren, gutxi direlako. Bianditz elebakarraren ekoizpen modua, ordea, Peru elebidunarenarekin erka dezakegu, neurri batean bederen, ergatiborik gabeko adibideak ugariagoak direlako. Oitzek, ostera, une batetik aurrera egoki darabil beti ergatiboaren marka.

Laburtuz, zera esan dezakegu, lehenengoz, ergatiborik gabeko alditik ergatiboaren erabilera egokiaren aldira, haur guztiek erakusten dutela tarteko edo bigarren aldi hau, eta bigarrenenik, denongan ikus daitekeela erabileraren maiztasunaren handitze nabarmena. Dena den, ohartarazi nahi dugu tarteko aro honetan ergatiboaren ordeztu haurrek ez dutela beste markarik gauzaten, -ø marka baizik, edo bestela esateko, aurreko aroko formak edo aldaerak erabiltzen dituztela ematen du.

3. Une batetik aurrera ergatiboaren markaren erabilera egokitzat har daiteke bost haurren ekoizpenetan, egokitzat esaldien %90 marka horrekin egitea jotzen badugu. Nabarmena da egoera horretan daudela Oitz 2;04 adinetik aurrera, Egoitz 2;05 adinetik aitzina eta Mikel 2;08 adinetik aurrera (2;10 adineko datuak alde batera uzten baditugu). Alabaina, Peru elebidunaren eta Bianditz elebakarraren datuei begiratzen badiegu, kontua ez dago hain argi.

Kontua hain argi ez dagoela diogu, Bianditzek 3;00 adinarekin ia %30 aldiz ez duelako ergatiboaren marka erabiltzen, eta Peruk antzeko joera erakusten duelako 3;05 adinera arte. Baina azal ditzagun xehekiago datuok.

Elosegik (1998) erakutsi digunez, argi dago Peruk egoki darabilela ergatiboaren kasu marka 2;10 adina duenetik aurrera. Elosegik Peru haurraren emanaldietan agertzen den marka honen erabileraren azterketarako bi aldaera izan ditu kontuan. Alde batetik, kategoria lexikoak hartu ditu aintzat: izenordainak, izen bereziak, izen arruntak, erakusleak, eta abar. Beste aldetik, berriz, ergatiboaren atzizkia agertzen den inguru fonetiko-fonologikoari erreparatu dio, hots, markaren ondorengo hitzaren hasieraren baldintzapen fonetikoari: -k marka esaldia-aren amaieran den, kontsonante baten aurrean den edo bokal baten aurrean den.

Kategoria lexikoen arabera ez du datu esanguratsurik aurkitu, egite edo ez-egiteari dagokiolarik behinik behin. Baina ergatiboaren marka eraman behar duen sintagmaren egonguneari begiratuta, ostera, inguru fonikoa oso garrantzitsua dela ikusi du. Badirudi kontsonante aurreko -k ergatiboaren marka gauzatzeari zailagoa egiten zaiola haurrari. Peruk 2;11tik aurrera 110 aldiz darabil ergatiboaren atzizkia eta 17 alditan ez du ekoizten; ez du erabiltzen, beraz, %15etan. Baina kontuan hartzen badugu 127 adibide horietatik 27tan kontsonante aurrean dela, eta esaldi amaierako edo bokal baten aurreko ekoizpenei begiratzen badiegu, hona hemen nola agertzen diren datuok: 98 adibidetan marka ekoizten du, %98 alditan alegia. Datu honek, noski, Peruk 2;10 adinerako, edo agian lehenago, ergatibo kasuaren marka egoki menderatu duela erakusten digu.

Ezeizabarrenak eta Larrañagak (1996) ere antzeko zerbait ikusi dute Mikelen ekoizpenetan. Ikertzaile hauek inguru guztiak aztertu zituzten, aditzen batez ekoiztiak zein aditzik gabekoak, eta ondoko datu orokorrak eskaintzen dizkigute: Mikelek ergatiboaren marka %90 alditan gauzaten du bokal baten aurrean, %79tan esaldiaren amaieran eta %16tan kontsonante baten aurrean.

Zubirik (1997) ere antzeko jokabidea ikusi du Egoitz eta Bianditz elebkarren ekoizpenak begiraturik. Esaterako, Bianditz nexkaren 600 emanaldietatik ia 100etan kontsonante aurrean dagoen ergatiboaren *-k* atzizkia falta da, baina halere ontzat jo ditu; txartzat ematen ditu, ordea, bokal aurretik ahoskatu ez dituen 16 forma, ekoizpenen %2,7 guztira gutxi gorabehera.

Badirudi, beraz, inguru fonetiko-fonologikoak zerikusi handia duela *-k* markaren gauzatzearan. Nolanahi ere, argi dago 3;00 adina egin aurretik haur guztiek egoki menderatu dutela marka honen zeregina eta egoki markatzen dituztela aditz iragankorren subjektuak. Bestalde, esan behar da ez dagoela halako ezberdintasunik elebidun eta elebkarren artean.

#### 4.4. Aditz iragangaitz ezergatiboaren subjektuak

Badira euskaraz zenbait aditz iragangaitz, berez objekturik ez dutenak edo eskatzen ez dutenak, baina sintagma subjektua gauzatzekoan ergatiboaren *-k* marka erabiltzen dutenak. Subjektua ergatiboarekin markatzeaz gain, aditzarekiko komunztadura ere aditz laguntzaile iragankorrekin egiten dute. Mota honetako aditzei, Lafittek (1944), esate baterako, aditz deponenteak deitu zien terminologia klasikoa erabiliz; baina gaur egun, Levin (1983), Ortiz de Urbina (1988) eta beste zenbait hizkuntzalariren arabera *aditz iragangaitz ezergatiboak* deitzen zaie, eta guk ere horrelaxe egingo dugu atalburuan adierazi dugun legez.

Horrelakoak dira, adibidez, *jolastu* eta *jokatu* aditzak gaur egungo hegoaldeko hizkeretan<sup>6</sup> (46-47).

(46)      umeak ikastolan jolasten du

(47)      Elkorok ondo jokatu du

Sintagma subjektuan ergatiboaren kasu marka eskatzen duten aditzak eta aldi berean objekturik behar ez dutenak ez dira arestian aipatuak bezalakoak bakarrik. Egunero hitzetik hortzera darabiltzagan mota honetako aditzen artean, eta beraz umeentzat eskuragarriagoak direnen artean, *egin* aditzarekin osatutakoak ditugu: *hitz egin*, *negar egin*, *eztula egin*, *hegaz egin*, *zintz egin*, *igerian egin* eta abar, nahiz hauetan, gehienetan behintzat, nolabaiteko objektua badela onartu behar dugun<sup>7</sup>.

Haurrek halako aditzen subjektuak nola markatzen dituzten arakatu nahi izan dugu guk, aditzen iragangaiztasunak edo iragankortasunak sintagma subjektuak gauzatzekoan eragirik duen edo ez ikusteko. Zenbait haurrengan adibide gutxi bildu ditugun arren, ugari dira *jo-lastu* aditzarekin jasorikoak, eta guztietan sintagma subjektuan *-k* marka agertzen da eta *du* edo *nor-nork* motako aditz laguntzaileak darabiltzate haurrek aditzean hasiera-hasieratik, helduek eginen dugun bezalaxe (48-49).

(48)      Mikelek ez dau (=du) jolasten (O 2;06); zuk jolasten dozu (O 2,08); Mikelek bazkaldu dau (=du) (O 2;06); ez dau (=du) merezi (O 2;10)

(49)      nik jolastuko dot (M 2;05); Lagunek eta nik negar e(g)in dogu (M 3;00)

<sup>6</sup> Sarasolak (1996), ordea, *jokatu* aditzarentzat (*IZAN*, *nor* motako aditz saila) jokoak proposatzen du, 'gaur hegoaldean *du*' erabiltzan dugula adierazi arren.

<sup>7</sup> Gehienetan hala bada ere, ohartu hegaz egin/hegaran egin eta igerian egin bezalako aditzen kasuan, esaterako, ustezko objektua ez dagoela absolutiboan.

Hiru urtetik aurrera, aitzitik, askoz ugariagoak dira halako aditzak (50). Bizkaiera ikasten duten haurrek jokabide bikoitza erakusten dute *irten da/dau (du)* eta *igon da/dau (du)* bezalako aditzekin (51), bietariko formak entzuten dituzte eta.

- (50) ez dau (=du) balio (M 3;01); haginke e(g)iten dabe (=dute) (M 3;04); burrukan e(g)in daben (=zuten/duten) eta (M 3;05); e(g)in bi (=behar) dau (=du) hegaz (O 3;07); ba berriro sokatiran e(g)ingo dogu (O 3;08)
- (51) gero mahatsak urtetan eban (=zuen) (O 3;01); o(ra)intxe urtengo dau (=du) mahatsak (O 3;01), ba o(ra)in urtetan da (O 3;01); o(ra)in urtengo dau (=du) (M 3;04), keie urtengo da (M 3;06)

#### 4.5. Ergatiboaren jabeakuntza eta autozuzenketa

Gure ustez bada beste gertakari garrantzitsu bat aditz iragangaitzen eta iragankorren subjektuak gauzaterakoan bereziki aipatzea merezi duena. Hainbat alditan haurrek aditz iragangaitzen subjektuei, aditz iragankorren subjektuei dagokien *-k* marka eranstea, edo alderantziz, aditz iragangaitzarekin ergatibodun sintagma subjektua erabiltzen dutenean, berehala konturatzen dira eginiko akatsaz eta zenbaitetan beroni irtenbide egokia ematen ahalegintzen dira. Hau guztiau, noski, ez da era kontzientean gertatzen, baina edonola ere, haurrak gai dira gertakari honetaz ohartzeko eta autozuzenketak egiteko, jarraian ematen ditugun adibideetan ederki aski ikus daitekeen moduan:

- (52) hori ez dau (=du), horrek ez dau (=du) erueten (=eroaten)(O 2;04)
- (53) hau *ka-ka-ka* (eg)jitten du honek (E 2;04)
- (54) ba nik ni etorri naz zuregana (O 2;07)
- (55) ze Jontxuk Jontxu ez da konturatu (O 2;10)
- (56) ni nik holakue badeket (O 3;00)

Horrelako autozuzenketek erakusten digute haurrek ergatiboaren kasu markaren erabile-ra menderatu dutela neurri handi batean bederen, eta gai direla beren burua zuzentzeko bat-batean hitz egiten ari direla ere.

#### 4.6. Objektuen markak

Oro har, haurrek objektuak NOR edo absolutibo kasuarekin markatzen dituzte (57-61). Alabaina, batzuetan zenbait aditzen objektu bakarrak NORI edo datibo kasuaren markarekin ere ekoizten dituzte (62-65).

- (57) garajie tapa(t)u (d)ogu (M 2;04)
- (58) paper bat hartu dut (P 2;07)
- (59) nik ulia ebatu (O 2;04)
- (60) olai(n) talia (=zaldia) (i)ku(s)ten do (=du) Ego(i)tzek (E 2;03)
- (61) bazkaria (eg)in b(eh)ar dut (B 2;04)
- (62) ez ikutu niri (M 2;06)
- (63) o(ra)in honeri sakatu (O 2;03)

(64) lau(n)du niri olloa (eg)itten (*puzlean*) (E 2;07)

(65) eutsi pixkot honeri (B 2;04)

Hala ere, gehienetan erabiltzen duten marka absolutiboarena da, datiboarena oso gutxitan agertzen baita. Horrela, 6. taulan ikus daitekeen legez, Oitz haur elebakarrak eta Mikel haur elebidunak, esaterako, datiboaren marka 10 eta 3 aldiz darabilte objektuekin, guztira, hurrenez hurren 400 eta 200 objektu baino gehiago izanda; eta erabiltzen dituzten datibo hauetarik Oitzek zazpitan eta Mikelek behin ematen dituzte helduen arauen arabera.

6. taula: objektuen markak

adina	Oitz: elebakarra			adina	Mikel: elebiduna		
	abs/NOR	dat/NORI (egoki)	dat/NORI		abs/NOR	dat/NORI (egoki)	dat/NORI
				1;10	3		
				1;11	1		
2;00	15			2;00	12		
2;01	10			2;01	5		
2;02	10			2;02	3		
2;03	23	4	1	2;03	26		
2;04	52			2;04	35		
2;05	47			2;05	14		
2;06	42		1	2;06	19	1	
2;07	19			2;07	17		
2;08	51			2;08	13		
2;09	37			2;09	14		
2;10	52	2	1	2;10	13		
2;11	38	1		2;11	23		1
3;00	43			3;00	41		1

Dena dela, esaldian dagoen objektu bakarra datiboarekin markatzea, hitzun helduok egiten dugun gertaera arrunta da, zenbait aditzekin behintzat (66): *lagundu, deitu, begiratu, itxa-ron, sakatu*,... Areago, aditz batzuek ez dute bestelako objekturik onartzen (67). Horrelakoak dira egokitzat jo ditugunak haurren ekoizpenetan.

(66) nik zuri itxaron dizut

(67) lanari ekin behar diogu

Badirudi guk aztertutako haurrek objektu bakarrak, objektu hauek batez ere pertsoneri eta zenbait biziduni dagozkienean (1. eta 2. pertsona guztiak eta 3. pertsonako hainbat), datiboz markatzeko joera dutela. Horrela, zenbait emanalditan, arauaren aurka ekoizten dute datiboaren marka (68-71). Hala ere, honelako aditzen erabilera dela-eta, ez da ahantzi behar haurren inguruko helduek zer-nolako erabilera egiten duten, ez baita beti arauaren arabera izaten.

(68) baina gero nik jo e(g)in bi (=behar) (d)otzet (=diot) Laguni (=txakurrari) (M 2;11)

(69) Jurgi etortzen bada niri jotzen, zuk eman bi(har) (d)otzezu (=diozu) eperdien (=ipur-dian) (O 3;05)



Subjetu eta objektu markak euskaraz eta gaztelaniaz haur elebakar eta elebidunengan

(70) eta *da-da* joko di(o)t bil(d)otsari (E 2;09)

(71) amari jo dio eta horrela joan da (B 2;05)

Alabaina, objektutzat agertzen diren bizidun guztiak ez dituzte beti datiboaren markarekin gauzatzeko, gutxienez NOR edo objektua hirugarren pertsonak direnean. Ondoko adibide hauetan ematen dugu esan dugunaren frogak (72-76):

(72) zuk ikusi hortik Baltz (=txakurra) (M 3;00)

(73) ba, Arantzak egun baten hil e(g)in zaban kanpoko sagutxo bat (O 3;09)

(74) (e)ta otxoa ikusi xuten a(r)kumek eta... (E 3;00)

(75) behiak (i)kusi ttut, zuk ez duzu ikusi behiak (B 2;11)

(76) Biandi(tz) kuxi nahi rut ho(r) (*kamarara seinalatuz*) (B 2;10)

#### 4.7. Objektuak partitiboarekin

Partitiboaren erabilera, absolutiboarena bezalaxe, ez da aditz iragangaitzei dagozkien sintagma subjektuetara soilik mugatzen, atzizki honekin janzten baitira objektuak ere, gehienbat esaldiak ezezkoak edo galderazkoak direnean (77-79).

(77) honek ez deko txapelik (M 2;08)

(78) nik ez dot eukitten hotzik (O 2;07)

(79) honek ez do ñiñi(ri)kan (B 2;04)

Edonola ere, partitiboaren afera honetan badago zer zehaztu. Oitz elebakarrak eta Mikel elebidunak darabilten arren, Egoitz eta Bianditz elebakarrek gutxiago darabilte, eta Peru elebidunak ez darabilela dirudi. Diferentzia honen arrazoiak, behar bada, entzuten duten euskararen araberakoak izan daitezke, eta behar bada haurren ikasprozesuari berari dagokion garapenean bilatu behar dira. Baina badirudi, datuak ikusirik, alde honetatik ere, partitiboaren erabilerak ez duela zerikusirik elebakartasun edo elebitasunarekin.

#### 4.8. Aditzetan subjektuei dagozkien markak

Aditz morfologiaren ikaskuntza prozesuaren garapenean hasieretako aldi batean subjektuarekiko komunztadurarik gabeko urratsa ikusi ahal izan dugu; zehazkiago azalduz, esan nahi duguna da aditz morfologiaren jabeakuntzaren garai zehatz horretan hirugarren pertsonari dagozkion aditzak edozein pertsonarekin darabiltzatela haurrek. Guk aurkitutakoan artean segidan aipatzen ditugun bezalakoak dira (80-83).

(80) han da(g)o(z) (behiak) (M 1;09)

(81) ni(k) dauka(t) jertsea (O 2;02)

(82) e(z)ta kut(x)area ha(r)tu (*berak hartu nahi izan arren*) (B 1;09)

(83) hoi(e)k a(r)ru(nt) go(r)ra ra (B 1;10)

Haurrak, prozesu honen hurrengo urratsetan, aditz komunztaduraren hainbat ezaugarri jabetuko dira. Aurrerapen hauen lehen ezaugarria subjektuarekiko komunztadurarena da, hau da, subjektuaren ezaugarri morfologikoak sintagmetan ez ezik, aditzetan ere mar-

katzen dira, bai aditz iragangaitzetan bai iragankorretan. Azpimarratu beharra da hasiera-hasieratik bereizten dituztela aditz iragankorren subjektu-atzizkiak eta aditz iragangaitzen subjektu-aurrizkiak.

Ondoko 7. eta 8. tauletan ikus ditzakegu Oitz elebakarrak eta Mikel eta Peru haur elebidunek, esaterako, nolako jokabidea erakusten duten eta zenbat aldiz agertzen diren aditz iragankor eta iragangaitzetako subjektuei dagozkien ezaugarri morfologikoak aditzean bertan markaturik.

7. taula: aditz iragangaitzetako subjektuen markak aditzetan (Oitz, Mikel eta Peru)

adina	1s n-	2s z-	3s d-	1pl g-	2s z- + -te	3pl d- + (-te)
1;07			0-4-0			
1;09			0-26-0			
1;10			0-15-0			
1;11			0-18-0			
2;00			11-77-1			0-1-0
2;01	0-1-0		4-7-0			
2;02			31-50-1			
2;03	3-0-0		27-20-5			0-2-0
2;04	3-3-0	1-0	59-62-5			0-3-0
2;05	12-0-0	1-0	91-36-9			4-0-0
2;06	1-1-0		92-41-0			9-3-0
2;07	5-1-0		34-27-30	0-2-0		7-4-0
2;08	11-1-0	5-0	67-28-29	1-2-0		14-1-0
2;09	4-1-2	5-0	56-26-28	1-0-0		6-3-0
2;10	5-1-3	2-0	90-11-25	2-1-2		18-2-0
2;11	0-5-0	4-0	35-32-38	0-0-2		8-1-1
3;00	6-6-3	0-2	53-53-12	2-1-0		4-12-0
guztira	50-20-8	18-4-2	650-533-183	6-6-4		70-31-1

8. taula: aditz iragankorretako subjektuen markak aditzetan (Oitz, Mikel eta Peru)

adina	1s -t	2s -zu	3s -ø	1pl -gu	2s -zue	3pl -te
1;07			0-1-0			
1;09			0-9-0			
1;10			0-3-0			
1;11			0-17-0			
2;00	0-3-0		0-17-2	0-1-0		
2;01	0-2-0		0-6-0			
2;02	0-1-0		4-6-0			
2;03	3-9-0	0-5-0	3-19-0			
2;04	6-24-1	1-3-0	13-17-3	3-5-0		
2;05	21-18-1	4-2-0	20-5-4	3-2-0		
2;06	16-25-0	10-2-0	26-4-0	5-3-0		2-0-0
2;07	21-16-4	2-1-0	9-6-3	1-2-0	1-0-0	6-6-0
2;08	39-14-3	13-2-1	33-10-26	4-3-0		4-1-0
2;09	23-22-3	11-1-1	20-7-9	6-2-1		2-1-0
2;10	45-13-12	10-1-2	40-1-15	9-12-13		1-0-0
2;11	32-28-4	5-3-0	9-11-8	11-16-5		2-1-0
3;00	54-29-9	8-5-2	9-18-10	0-11-9		5-3-1
guztira	255-204-37	64-25-6	186-157-80	42-56-28	1-0-0	22-12-1

Aditz iragangaitzei dagozkien morfema subjektuak aurrizkien bidez islatzen dituzte (*n*-, *z*-, eta *d*-), eta pluraleko aditzetan, pertsona aurrizkiez gain, pluralgile marka ere eranstean die-*te* (*g*-(+*-te/-z*), *z*-(+*-te*) eta *d*-(+*-te/-z*)) (84-88).

- (84) ni *n*-aix Egoitz (E 2;05), kanpon ibilli *g*-a(ra) pillotakin (E 2;10)  
 (85) sa(l)toka ibi(l)ttu *n*-aiz (B 2;03), gu hemen egongo *g*-a(ra) (B 2;06)  
 (86) ni bildurtu e(g)in *n*-az (M 2;01), ba-*g*-oa-*z* (M 2;04)  
 (87) ni *n*-az (O 2;03), *g*-uazen kamarara (O 2;10)  
 (88) ni *n*-ago bakalik (P 2;10), gu joango *g*-ara (P 2;10)

Aditz iragankorretako subjektu-morfemak, aldiz, ohiko atzizkien bidez adierazten dituzte (*-t*, *zu*, *-ø*, *-gu*, *-zue* eta *-te*) (89-93).

- (89) bota ru-*t* (E 2;04), (eg)in ru-*gu* lo (E 2;08)  
 (90) hau ken(d)u ru-*t* (B 2;00), koleta (eg)ingo ru-*gu* (B 2;01)  
 (91) bazkaltzen du-*t* (P 2;10), jokatuko gu-*gu* laketakin? (P 2;10)  
 (92) ez deko-*t* ipinita (O 2;04), guk e(g)in do-*gu*. (O 2;04)  
 (93) t(r)ena egingo lu-*t* (M 2;09), nun ipiniko du-*gu* kotxea? (M 2;04)

Ohartzekoa da pertsonen bakartasunaren edo aniztasunaren arabera morfemak aldatu egiten direla. Esaterako, aditz iragangaitzetan lehenengo pertsona adierazteko, singularra

izan edo plurala izan, aurrizki desberdinak erabiltzen dira, batean *n*- eta bestean *g*- aurrizkiak; baina bigarren pertsonak ematerakoan, singularra izan edo plurala izan, ez dira aurrizkiarengatik desberdintzen, ondotik dioan pluralgilearen erabilera gatik baizik, batean *z*- eta bestean *z*- + *-te* baitira. Beraz, aldatzen dena ez da aurrizkia, lehenengo pertsonan gertatzen den bezala, pluralgilearen marken agerterak adierazten baitu gauza bakarraz edo anitzez ari garen. Hirugarren pertsonarekin bigarrenarekin bezalaxe suertatzen da, numeroa jakiteko pluralgileari egin behar zaiola so.

Hala ere, noizean behin, batez ere aditzaren morfologia agertzen hasten denean, hurrek okerreko aditza aukeratzen dute, hots, pertsona jakin bati dagokion aditz-forma erabili beharrean beste bat aukeratzen dute (lehen aipatutako 80-83); eta beste zenbaitetan aditz iragangaitzak erabiltzen dituzte iragankorren ordean, edota alderantziz, aditz laguntzailearen paradigmatik nahasten dituzte besteetan (94-96).

(94) hori ez da (x dut) pa(ra)tu (B 1;11)

(95) ni e(z)to (= ez du) eroriko (B 2;01)

(96) hau eloli in (d)o (*txapela lurrera erori zaionean*) (E 2;03)

Alabaina, mota honetako adibideak oso urriak dira.

#### 4.9. Aditzetan objektuei dagozkien markak

Jakinik euskaraz objektu zuzenarekiko komunztaduraren erabilera ohiko aurrizkien (eta beste hainbat morfemaren) bidez egiten dela, 9. taulan bildu ditugu hiru haurren datuak. Bertan ikus daitekeen legez, aurrizkien bidez (eta zenbaitetan pluralgileari dagokion artizkiaren bidez ere bai) gauzaturiko aditzak singularreko zein pluraleko 3. pertsonari dagozkionak baizik ez dira, hau da, NOR (objektua) hirugarren pertsona denean besterik ez dute erabiltzen garai honetan haur hauek.

Oro har, haur guztiek jokabide bera dutela esan dezakegu. Hasteko, azpimarratu behar da 3. objektu marka 3. pertsona bezala besterik ez dutela ekoizten; eta bigarrenik, 3. pertsonari dagozkion forma hauetan, singularrak eta pluralak bereizten dituztela. Nolanahi ere, pluraleko 3. pertsonen ekoizpenetan bada ezberdintasunik haurren artean. Esaterako, Mikel elebidunak 2;04 adina duenean ekoizten du lehendabizikoa eta 3;00 arte hiru besterik ez ditu gauzatzen; Oitz elebakarrak, berriz, 2;06 adinarekin ekoizten ditu lehenbizikoak eta 3;00 arte 35 gauzatu ditu; Peru haur elebidunak, bestalde, 2;10 adinarekin ematen du lehenbizikoa eta 3;00 arteko corpusean horixe da aurkitzen dugun bakarra.

Edonola ere, hiru urtetik aurrera 3. pertsonari dagozkion pluraleko aditzak nabarmen ugaltzen dira haur guztiengan.

Alabaina, zer egiten dute hurrek objektua (NOR, alegia) lehen edo bigarren pertsona denean? Oro har, lehenago ikusi dugun legez, argumentua NORI edo datiboaren markarekin gauzatzen dute eta aditza NOR-NORI-NORK motakoa aukeratzen dute. Ondoko 10. taulan, arestian aipaturiko hiru haur hauek hiru urte bete arte erabili dituzten NORIdun aditz iragankorrek bildu ditugu. Bigarren zutabeetan, hau da, *artizkien ekoizpen osoa* deiturikoan, halakoetan kopuru osoak bildu ditugu (objektu bakarra zein bi dauzkatenak), baina hurrengo zutabeetan objektu bakarreko aditzak baizik ez ditugu azaldu. Deskribapen honetan gramatika pertsonak bereizteaz gain, ohiko helduen jokabidea jarraitzen duten adibideei *e* zeinua erantsi diegu eta ohiko helduen jokabidetik bereizten direnei ez diegu inolako markarik gaineratu. Esan behar dugu objektu bi dauzkaten aditz iragankorrek ez ditugula aipatu.

9. taula: objektu zuzenen isla aditz komunztaduran (Oitz, Mikel eta Peru)

adina	1s n	2s -z-	3s d-	1pl g- + pl.	2pl z- + pl.	3pl d- + pl.
1;07			0-1-0			
1;09			0-9-0			
1;10			0-4-0			
1;11			0-17-0			
2;00			0-21-0			
2;01			11-8-0			
2;02			4-7-0			
2;03			6-33-0			
2;04			23-48-4			0-1-0
2;05			48-27-5			
2;06			56-34-0			3-0-0
2;07			40-25-7			
2;08			85-30-30			4-0-0
2;09			58-32-14			4-1-0
2;10			90-26-41			15-1-1
2;11			55-59-17			4-0-0
3;00			71-66-29			5-0-0
guztira			547-443-149			35-3-1

Ikus daitekeen bezala artizkien bidez komunztatzen diren aditz iragankor hauen artean badira nagusien jokabidea jarraiturik ekoitzi dituztenak, hau da, objektu bakarra izan arren berau zehar objektuari dagokion artizkiarekin islatzen direnak aditz morfologian. Oitz haur elebakarrak 3;00 adina izan aurretik NORIrekiko komunztadura erakusten duten 56 aditz iragankor ekoitzi ditu. Hauetariko 41, objektu birekin (97), eta 15, objektu bakarrarekin gauzatu zituzten ditu (98<sup>8</sup>); azken hauetatik 11 mintzaide helduen araua jarraiturik gauzatu zituzten (98). Mintzaide helduek egiten ez duten legez, artizkiez adierazitako objektu bakarrak 4 (99<sup>9</sup>) dira guztira. Mikel elebidunak, adin bera izan arte, NORIrekiko komunztadura derakusaten 30 aditz iragankor ekoitzi ditu; hauetako 23tan bi objektu ikus ditzakegu, eta gainerako 7etatik 3tan, mintzaide helduek bezala egiten ditu, nahiz objektu bakarra artizkiekin islatu. Azkenean 4tan objektu bakarra artizkiekin markatu du, baina hauetan mintzaide helduen arabera aurritzkiak erabili beharko zituzkeen. Peru elebidunak hiru besterik ez ditu ekoitzi eta hirurak dira bi objektudunak.

<sup>8</sup> Adibide honetan badira NORK sintagma (*Mikel*) eta NORI sintagma (*niri*), baina ez da NOR sintagmarik. Edo zelan ere, ekoizpena bat dator arauarekin.

<sup>9</sup> Adibide honetan ez dago NOR sintagmarik. Gainera, ez dator bat helduen arauarekin.

10. taula: atizkien bidezko objektu zuzenen isla aditz komunztaduran  
(Oitz, Mikel eta Peru)

adina	artizkien ekoizpen osoa	1s -t/-da-	2s -zu-	3s -o-	1pl -gu-	2s -zue-	3pl -e-
2;04	2-1-0						
2;05	2-5-1		0-1-0				
2;06	8-0-0	1e-0-0					
2;07	2-4-0	1e-0-0	0-2-0	1-0-0			
2;08	11-1-0	3e-1e-0					
2;09	4-3-0	1e-2e-0		1-0-0			
2;10	11-5-0	1-0-0		2e+1-0-0			
2;11	11-7-0			2e-1-0			
3;00	5-4-2	1e-0-0					
guztira	56-30-3	7e-3e-0 1-0-0	0-2-0	4e-0-0 2-2-0			

(97) eta honek zer esaten dotze (=dio) mutilari? (O 2;08)

(98) lagunduko doztezu (=didazu), Mikel? (O 2;08)

(99) Jurgik jo dozte (=dit) (O 2;09)

Hiru urtetik aurrera jokabide hau ez da aldatzen ez Oitz elebakarrarengan eta ez Mikel elebidunarengan ere. Oitz haur elebakarrak 3;09 adina duenean objektua lehen pertsonadun aditz bat ekoizten du, bakarra corpus osoan (100).

(100) joten nau holan ta... (O 3;09)

Peru haur elebidunaren ekoizpenak, ostera, ezberdinak dira. Haur honek hiru urtetik aurrera ekoizten ditu lehen eta bigarren pertsonetako objektu komunztadura darakusten aditzak, baina ez du beti araua gordetzen (ikus 11. taula).

Laburbildurik, zera esan dezakegu, objektuak aditz morfologian islatzean ez dagoela ezberdintasun handirik elebakar eta elebidunen artean. Haur gehienek hirugarren pertsonetako objektuak baizik ez dituzte islatzen arauaren arabera. Lehen eta bigarren pertsonetako objektuak, ostera, zehar objektuenak legez, artizkien bidez islatzen dituzte. Peru haur elebidunak, araua gorderik, batzuetan bigarren pertsonetako objektuak NOR-NORK paradigmako aditz laguntzaileak erabiliz gauzatzeko, baina, egia esan, *zaitut* forma besterik ez da agertzen. Edonola ere, 11. taula azaldu dugun moduan, aditz guztien erdietan beste haurrek bezala jokatzeko, NOR-NORI-NORK sistemako aditz laguntzaileak ekoizten dira.

<sup>10</sup> Adibide honetan badira NORK sintagma (Mikel) eta NORI sintagma (niri), baina ez da NOR sintagmarik. Edozelan ere, ekoizpena bat dator arauarekin.

<sup>11</sup> Adibide honetan ez dago NOR sintagmarik. Gainera, ez dator bat helduen arauarekin

11. taula: objektuen komuntadura Perurengan

adina	NOR-K aditza NOR-I-K aditzaren ordez	NOR-K aditza egoki erabilirik	NOR-I-K aditza NOR-K aditzen ordez	NOR-I-K aditzak egoki, aditzak objektu bakarra duen arren
3;02		1 (zaitut)		1 (dizut)
3;03			1 (dio-du-)	
3;04	1(nau -dizu-)			
3;05				1 (dizut)
3;06				
3;07		8 (zaitut) 2 (dut)	7 (dizut-zaitut-) 1 (diot-dut-) 1 (dio-du-) 1 (diogu-dugu-)	1 (diot)

Laburbildurik, zera esan dezakegu, objektuak aditz morfologian islatzean ez dagoela ezberdintasun handirik elebaker eta elebidunen artean. Haur gehienek hirugarren pertsoneri dagozkien objektuak baizik ez dituzte islatzen arauaren arabera. Lehen eta bigarren pertsoneri dagozkienak, ostera, zehar objektuenak legez, artizkien bidez islatzen dituzte. Peru haur elebidunak, araua gorderik, batzuetan bigarren pertsoneri dagozkien objektuak NOR-NORK paradigματο aditz laguntzaileak erabiliz gauzatzen ditu, baina, egia esan, *zaitut* forma besterik ez da agertzen. Edonola ere, 11. taula azaldu dugun moduan, aditz guztien erdietan beste haurrek bezala jokatzeko du, NOR-NORI-NORK sistemako aditz laguntzaileak ekoiziz.

#### 4.10. Iraganaldiko aditzei dagozkien subjektu markak

Aztergai ditugun bost haur hauek honako adinarekin, edo hobeki esan, adin honetatik aurrera hasten dira iraganaldiko aditzak gauzatzen: Bianditz elebakarra 2;03 adinetik aurrera, Egoitz elebakarra 2;07 adinarekin, Oitz elebakarra 2;07tik aurrera, Mikel haur elebiduna 2;10etik aurrera eta Peru haur elebiduna 2;10 adinarekin. Ondoko taulan jaso ditugu aditz mota hauei buruzko datuak, berehalakoan azalduko ditugun hainbat xehetasun ematen ditugularik bidenabar (12. taula).

Bianditz neska elebakarrak 43 iraganeko aditz erabiltzen ditu 3;00 adina bete arte, Egoitz elebakarrak 44 aditz darabiltza, Oitz elebakarrak 53, Mikel elebidunak 26, eta Peru haur elebidunak, aldiz, 6. aditz guzti hauetarik objektua 3. pertsonari dagokiona daukatena (aditz iragankorrak, alegia) 20, 14 eta 21 dira elebakarrengan eta 16 eta 3 elebidunengan, hurrenez hurren.

Datuak ikusirik, aditz iragankorrak gauzatzean haurrek bestelako jokabide derakusatela esan dezakegu. Batetik, Peru haur elebidunak mintzaide helduek bezala darabiltza aditzak. Bestetik, Bianditz, Egoitz eta Oitz elebakarrak, bai eta Mikel elebidunak ere, jokabide bikoitza derakusate.

12. taula: iraganeko aditzak (Bianditz, Egoitz, Oitz, Mikel eta Peru)

adina	guztira	iragangaitzak	iragankorrak (araua gorderik)	iragankorrak (orainaldia + -(e)n)
2;03	1-0-0-0-0			1-0-0-0-0
2;04	2-0-0-0-0	2-0-0-0-0		
2;05	2-0-0-0-0	2-0-0-0-0		
	2;06	4-0-0-0-0		4-0-0-0-0
2;07	1-1-2-0-0	0-0-1-0-0	1-1-0-0-0	0-0-1-0-0
2;08	4-2-5-0-0	4-2-5-0-0		
2;09	7-4-13-0-0	3-2-7-0-0	4-0-3-0-0	0-2-3-0-0
2;10	8-1-17-7-2	4-1-12-2-0	1-0-2-4-2	3-0-3-1-0
2;11	9-3-13-3-2	4-2-5-0-1	3-0-2-1-1	2-1-6-2-0
3;00	5-33-3-16-2	0-22-2-8-2	1-9-1-3-0	0-1-0-5-0
guztira	43-44-53-26-6	19-29-31-10-3	14-10-8-8-3	6-4-11-8-0

Datuak ikusirik, aditz iragankorrak gauzatzean haurrek bestelako jokabide derakusatela esan dezakegu. Batetik, Peru haur elebidunak mintzaide helduek bezala darabiltza aditzak. Bestetik, Bianditz, Egoitz eta Oitz elebakarrak, bai eta Mikel elebidunak ere, jokabide bikoitza derakusate.

Lau haur hauek —Bianditzek, Egoitzek, Oitzek eta Mikelek alegia— batzuetan helduen ereduko aditzak ekoizten dituzte (bizkaieraz *neban*, *eban*,...; zein batuan edo batu antzekoan *nu(e)n*, *zu(e)n*,...) (101). Besteetan, aldiz, orainaldiko formei *-(e)n* iraganaldiko atzikia eranstean diete (102). Lehenengo bidea NOR-NORK motako aditzekin darabilte, bigarrena, aldiz, NOR-NORK motakoekin nahiz NOR-NORI-NORK motako guztiekin.

(100) eta e(d)uki n-u-en txapela (O 2;10); eta ne(g)a(r)ra (eg)in x-u-n (B 2;06)

(101) nik hemen egin dot-en lo (O 2;09); galleta (e)ta erama(n) baitto-n (=baititu) (E 3;00)

Aipatutakoaz gain, bada beste elementu garrantzitsu bat ere. Haurrek NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK motetako iraganeko aditzak ekoiztean, zenbaitetan, orainaldiko formei *-(e)n* morfema soila eranstean diete. Baina ez dugu jokabide bera ikusi ez NOR motako ez NOR-NORI motako aditzak erabiltzerakoan. Gainera, bizkaieraz, NOR-NORI aditzak osatzean, horrelakoa da araua: *apurtu jata/apurtu jatan*. Umeen ekoizpenetan, ordea, ez dugu NOR-NORI motako iraganeko aditzik bildu, baina bai NOR motako iraganaldiko forma ugari.

Orainaldiko aditzei iraganeko *-(e)n* morfema erantsiz iraganeko aditz berriak sortzearen jokabidea ez da hain fenomeno berria, hainbat mintzaide heldu eta gaztek gauza bera egiten baitute Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait tokitan behinik behin (Elordui 1995). Kontua da erabilera honen interpretazioa zein den edo zein izan daitezkeen azaltzea. Guri gutxienez bi arrazoi egon daitezkeela iruditzen zaigu. Batetik, orain arte uste izan den bezala, aditz sistema errazteko modua da, orainaldiko aditzei iraganeko morfema hutsa gaineratzea. Bestetik, itxurazko edo ageriko markaketa ergatiboari eusteko modua ere izan daiteke. Beharbada, bi arrazoiak batera ere egon daitezke. Nolanahi ere, ondorioa zera da, haur elebakarrek eta elebidun orekatuek iraganeko aditzak ekoiztean bi eratakoak osatzen dituztela, hots, helduek bezalakoak eta orainaldiko aldaerei iraganeko *-n* ezaugarri morfologikoa gaineratutakoekin eraturakoak.



Arrazoi gehiago eman nahi izatekotan, guttiz bestelako ikuspuntu bat hartuz —esaterako, ikusmolde eraikitzaile batetik begiraturaz—, esan daiteke, haurrek aditzak *asmatzen* dituztela hainbat arau edo erregela barneratzen ari direlako, eta jakina, barneratze prozesu horretan arau horiek oraindik ongi erabiltzen ikasi ez dutenez beren bide propioak jorratzen dituzte arau horiekin jokatzeko eta probak egiterakoan, edo bestela esateko, beren behin-behineko gramatika eraikiz doaz helduen eredura iritsi arte, eta bitarte horretan sortzen dira hala-ko forma *asmatuak*.

Oitz haur elebakarrak, 12. taulan ikus daitekeenez, goizago darabiltza markaketa berriko aditzak bere gurasoengandik entzuten dituen ohiko iraganeko aditzak baino. Mikel haur elebidunak, ostera, hasiera-hasieratik darabiltza bi bideak.

Bada, hala ere, azpimarratzea merezi duen beste datu interesgarrikerik ere. Lau haurrek darabiltzaten iraganeko aditz iragankorrak aintzat hartuz eta hauek erakusten duten komunztadura mota ikusiz gero, hau da, komunztadura bikoitza (NOR-NORK motakoa) egiten duten edo komunztadura hirukoitza (NOR-NORI-NORK motakoa) egiten duten begiraturaz gero, joka-bide desberdina dutela ikus dezakegu. Komunztadura bikoitzekoetan, lau haurrek darabiltzate bi aukerak, hots, ohiko aditzak zein aditz berriak.

Komunztadura hirukoitzekoetan, ostera, aditz berriak baizik ez ditugu bildu bi haur bizkaitarren ekoizpenetan. Haur nafarren ekoizpenetan, ordea, datu gutxi ditugu gauzak behar bezala zehazteko, zeren Egoitzek aditz bakar bat erabiltzen du 3 urte arte eta hura helduen eredukoa da; Bianditzek, berriz, lau erabiltzen ditu eta hauetarik hiru helduen eredukoak dira, eta bestea aditz berria da.

Peru haur elebidunak, ordea, ohiko aditzak baizik ez ditu ekoizten. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar hiru aditz iragankor besterik ez dituela gauzatu hiru urte bete arte, eta beharrezkoa egiten zaigula begirada laburtxo bat ematea ondoko hilabeteetan egindakoei. Peruk mota honetako 4 aditz darabiltza 3;04 adinarekin, 3 NOR-NORK sistemako aditz (hiruretan *zuten* forma) eta 1 NOR-NORI-NORK sistemakoa (*zi(e)ten* forma), eta 13 aditz erabiltzen ditu 3;06 adinarekin, denak NOR-NORK sistemakoak (agertzen direnak honako hauek dira: *nuen*, *zuen* eta *zuten*). Denak arauaren arabera gauzatutakoak dira. Oitzek eta Mikelek, aldiz, 3;00tik aurrera badirudi bide berria aukeratzen dutela, honelakoak baitira iraganeko adizkirik gehienak (102):

(102) hone(r)i, hone(r)i eruen (d)otzan (M 3;11); badakizu zein hil (d)otzan? (M 4;00); baña tratorak ez totzen zapaldu (O 3;10)

Datuak ikusi ondoren baieztza daiteke ezberditansunaren mugak ez dituela elebakarrak eta elebidunak bereizten. Batetik, Peru haur elebidunak arauaren araberrako iraganaldiko aditz iragankorrak ekoizten ditu. Bestetik, Bianditz, Egoitz eta Oitz elebakarrek eta Mikel elebidunak aditz berriak ere ekoizten dituzte.

## 5. GAZTELANIAZKO DATUAK

### 5.1. Subjektuak gaztelaniaz

Guk arakatu ditugun gaztelaniazko ekoizpenetan, Mikelenan zein Perurenean, haurrek ez dituzte aditz iragangaitzen eta iragankorren subjektuak morfologikoki bereizten, beti baitute itxura bera, hau da, helduek erabiltzen dutenaren tankera (104-107). Adibideetan ikus daitekeenez, aditz iragangaitzen subjektuek (104 eta 106) eta aditz iragankorrenek (105 eta 107) marka bera dute morfologikoki, hots, nominatiboari dagokion  $\emptyset$  ezaugarria.

- (104) yo voy a ver esto (M 2;02)
- (105) yo tiro esto por ahí (M 2;03)
- (106) tú no vienes (P 2;10)
- (107) tú no sabes (P 2;10)

Morfologikoki ez ezberdintzeaz gain, esaldian hartzen duten egonguneari ere ez diote garrantzirik ematen. Horrela, Mikelek aditz iragankorren eta iragangaitzen sintagma subjektuak aditzaren aurrean (%48tan eta %77tan, hurrenez hurren) zein ostean (%52tan eta %23tan) ekoizten ditu (108-111).

- (108) yo he tirau una pintura (M 2;01)
- (109) yo pinto con esto (M 2;03)
- (110) he pintado yo este muchacho (M 2;02)
- (111) me monto yo (M 2;01)

Peruren ekoizpenei begiratu beste horrenbeste esan dezakegu aditz iragangaitzen subjektuei eta aditz iragankorren subjektuei buruz, aditzaren aurrean (112-113) zein ondoren (114-115) joan arren morfologikoki ez baitira bereizten. Elosegiren (1998) arabera, haur honek darabiltzan izenordain subjektuen %15a aditzaren ostean gauzatzen ditu, eta ez dira aditzaren aurrean agertzen direnetatik bereizten.

- (112) yo quiero jugar (P 2;11)
- (113) yo ya pintaba (P 2;10)
- (114) a ver si pongo yo (P 3;01)
- (115) en este me voy yo (P 3;02)

Hernández Pina (1984), López Ornat (1994) eta Aguirre (1995) ikertzaileek eskaintzen dizkiguten gaztelau elebakarren datuen arabera antzeko joera ikus dezakegu gaztelau elebakarren eta guk aztertu ditugun gaztelau elebidunen artean.

Gaztelau elebakarren ekoizpenetan, Aguirreren lanean (1995) Alberto haurraren eta López Ornaten lanean (1994) María haurraren behaketa longitudinaletatik atera ditugun datuen arabera, ez dago aditz iragangaitzen subjektuen eta aditz iragankorren subjektuen arteko desberdintasunik morfologiaren arloan (116-119). Egongunea ere ez da subjektuak bereizteko balio duen (edo haurrak erabiltzen duen) ezaugarri bereizleetakoko bat adibideetan ikus daitekeen bezala (120-123).

- (116) ¿tú baja(s) también? (Alb. 2;05; iturria Aguirre 1995)
- (117) tú quita ese (Alb. 2;05; iturria Aguirre 1995)
- (118) yo he visto una esponja en la (d)ucha (María 2;05; iturria López Ornat 1994)
- (119) tú te vas a vestí ahora (María 2;05; iturria López Ornat 1994)
- (120) yo pinto (Alb. 2;04; iturria Aguirre 1995)
- (121) pinto yo (Alb. 2;05; iturria Aguirre 1995)
- (122) tú ju(e)bas (juegas) sólo (María 2;04; iturria López Ornat 1994)
- (123) mira, donde te digo yo (María 2;04; iturria López Ornat 1994)

## 5.2. Gaztelaniazko objektuak

Gogorarazi behar da gaztelaniaz izenordain subjektuak eta objektuak bereizten direla (*yo/me, tú/te,...*), baina gure araketa izenen eremura bakarrik bideratu dugu, txosten honen asmo eta helburu nagusia haurrek subjektuak eta objektuak bereizten dituztela erakustea baita.

Mikel haur elebidunak 3;00 adina duen arte aditzen batez lagunduriko 263 objektu gauzaten ditu gaztelaniazko ekoizpenetan; hauetarik bi besterik ez ditu gauzatu a preposizioarekin (124); beste guztiak inolako markarik gabe ekoitzi ditu (125). Gainera a preposizioaren erabilera objektuen aurrean berandu samar agertzen dela ikus dezakegu, 2;10eko adinetik aurrera, hain zuzen ere. Badirudi, hortaz, preposizioaren erabilera ez dela objektuak eta subjektuak bereizteko bide nagusia edo behinena.

(124) ¡esperarme a mí! (M 2;10)

(125) ¡quita el coche! (M 2;00)

Era berean jarraituz, objektuen %89,4 aditzaren ondoren jarri ditu Mikelek (126). Aditzaren aurrean gauzatu dituen %9,9 arauaren arabera ekoitzi ditu, NZ galderak (127) edo nolabaiteko indarra duten mintzagaiak (128) baitira, eta horrela eskatzen du gaztelaniaz.

(126) yo tiro esto por aquí (M 2;03)

(127) ¿qué va a comer este? (M 2;07)

(128) un puerro (lo) he hecho yo (M 2;03)

Objektu guztien %0,7 soilik gauzatu ditu Mikelek aditzaren aurrean, horretarako halako arrazoi berezirik gabe (129-130), hots, helduek egiten dutenetik bereizten direnak. Kontuak kontu, guztira bi adibide besterik ez dira.

(129) ¡cuchillo toma! (M 2;01)

(130) yo esto llevo (M 2;09)

Datu hauek azaldu ondoren, badirudi, besteak beste, egonguneak markatzen duela objektua, aditzaren osteko egonguneak —nagusiki— edo NZ galderetan eta mintzagaietan esaldiaren hasierako egonguneak —gutxiagotan—, alegia. Gogora dezagun Mikelen euskarazko objektuen ekoizpenetan, ordea, egonguneak ez duela inolako bereizketarik egiteko balio, %46 aditzaren aurrean eta %54 aditzaren ostean ekoizten baititu.

Peru elebidunak ere gaztelaniazko objektuak aditzaren ostean ipintzeko joera du (131-132). Elosegik (1998) dioenez, Peruk objektua %92 aldiz ekoizten du aditzaren ostean. Nolanahi ere, gainerako %8 horretako gehienak zati-galderak eta mintzagaia aurreratua duten esaldiak dira, eta, lehentxeago esan dugun legez, inguru hauetan ohiko da gaztelaniaz objektuak aditzaren aurrean jartzea.

(131) quita la mano (P 2;09)

(132) tiene pilas (P 3;02)

Horrezaz gain, izenordain objektuak arauaren arabera bereizten ditu Peruk izenordain subjektuetatik (133-134).

(133) no te veo (P 2;05)

(134) ¡tziar, ¿me coges? (P 2;09)

Haur gaztelau elebkarrek era bertsuan gauzaten dituzte objektuak. Hernández Pinak perpausen barneko elementuen hurrenkerak aztertzen diharduelarik SAO hurrenkeraren nagusitasuna nabarmentzen du. Ikertzaile honek behatu duen haurren datuen artean badira beste zenbait hurrenkerak eta gehienetan objektuak aditzaren ostean ikus ditzakegu: ASO, AO,... Nolanahi ere den, zenbaitetan objektua aditzaren aurrean ere gauzatu zuen haur honek (135-136). Hona bere ustea hitzez hitz: *También (...) aparecieron en el repertorio del niño modelos OSV y OVS. Su función (maiztasuna) fue indudablemente muy baja, pero no imposible* (Hernández Pina, 1984: 264). Beraz, ordena nagusiaz gain (SAO), bestelako hurrenkerak ere agertzen dira elebkarretan.

(135) las zapatillas quita (Rafael, iturria Hernández Pina 1984)

(136) botas nene pone mamá (Rafael, iturria Hernández Pina 1984)

Haur gaztelaniadun elebkarren aditz komuntaduraren jabekuntza aztertzen diharduelarik, Aguirrek (1995) eskaintzen dizkigun adibideen artean objektua gehienetan aditzaren ostean agertzen da (137), 22 aldiz hain zuzen, eta bitan besterik ez aditzaren aurrean (138).

(137) hace caca (Magín 2;03; iturria Aguirre 1995)

(138) colilla quita (Magín 1;07; iturria Aguirre 1995)

Laburbidurik, beraz, haur elebidunek ez dituzte aditz iragangaitzei eta aditz iragankorrei dagozkien subjektuak morfologikoki bereizten gaztelaniaz, ezta esaldian hartzen duten egongunearen arabera ere, nahiz eta argi dagoen objektuak aditzaren ostean jartzerakoan egongune honek garrantzi eta zeregin handia duela berau ezagutu eta identifikatzeko tenorean. Gaztelaniadun elebkarren datuekin alderatuz ez dugu halako jokabide desberdinik ikusi.

### 5.3. Aditzetan subjektuei dagozkien markak

Jakina den bezala, aditz iragangaitzetan edota iragankorretan subjektuei dagozkien morfemak ez dira aldatzen, aditzetan marka berak gelditzen dira pertsonen arabera (139-140).

(139) quier-o jugar (M 2;04)

(140) no jueg-o (M 2;04)

Gaztelaniazko infinitiboen bukaera edozein delarik ere (-ar, -er edota -ir), subjektuen markak ez dira aldatzen —euskaraz ez bezala—, eta lekune berean kokatzen dira beti aditza mota batekoa izan edo bestekoa izan, hots, iragankorra izan edo iragangaitza izan.

Ondoko 13. taulan Mikel haur elebidunak gaztelaniazko aditzetan ekoitziriko morfema motak eta kopuruak adierazi ditugu pertsona marken arabera antolatuturik.

13. taula: subjektuen markak aditzetan Mikelen ekoizpenetan

adina	1s -o	2s -s	3s -ø	1pl -mos	2pl -is	3pl -n
1;09			9			
1;10	3		13			
1;11	7		40	3		
2;00	5	1?	21			
2;01	17		38			
2;02	20		29			1
2;03	29	2	27			1
2;04	35	2	44	6		
2;05	14	2	5	1		
2;06	23	2	38	2		3
2;07	43	7	60	13		3
2;08	13		30	3		2
2;09	21	4	32	4		
2;10	19	5	39	14		3
2;11	45	12	52	10		8
3;00	31	5	33	7		3
guztira	325	42	510	63		24

Begiratu batean ikus daitekeen moduan, lehenbizi agertzen direnak eta ugarietak, diferentzia handiarekin, singularreko hirugarren pertsona eta singularreko lehenbizikoa duten aditz formak dira.

Oro har, subjektuei dagozkien aditz-morfemak ikasteak eta erabiltzeak ez dio haurrari halako arazo berezirik ekartzen, eta beti zuzen erabiltzen ditu. Honetan, aditzetan agertzen diren pertsona markak ezagutzeko alegia, paradigmaren sinpletasunak eta erregularitasunak lagunduko du, seguru asko.

#### 5.4. Subjektu klitikoak

Subjektuekin komuntzatzen duten elementu klitikoak aditz komuntzadura baino beranduago agertzen dira haur elebidunen ekoizpenetan. Esaterako, Mikelek hirugarren pertsonari dagokion se klitikoak 1;11 adina duenean gauzatzen du, eta 2;01 adinarekin lehen eta bigarren pertsonari dagokien *me* eta *te* klitikoak (141-142). Gehienetan aditz iragangaitzekin gauzatzen baditu ere, tarteka aditz iragankorrekin emanak daudela ere ediren ditugu.

(141) me monto yo (M 2;01)

(142) me he hecho daño (M 2;07)

Perurengan ere bildu ditugu subjektuekin komuntzatzen duten klitikoak (143-144). Arestian aipatu dugun legez, haur elebidun honetan ere, jabekuntzaren segida orokorrari jarraikiz, lehenbizi se klitikoa agertzen da, eta besteak, lehenbiziko eta bigarren pertsonari dagokien klitikoak, beranduxeago.

(143) se ha ido aita, mi pa(dr)e (P 2;09)

(144) y yo me bajo y tú te caes ahí (P 3;01)

Adibide hauetan argi eta garbi ikus daitekeen bezala, subjektuaz gain, subjektuarekin berarekin komunztatzen duten klitikoak ere agerian gelditzen dira. Ez dirudi haurrek klitiko hauek objektuak azaltzeko erabiltzen diren beste beren kide homonimo zenbaitekin —lehenbiziko *me* eta bigarren *te* singularreko pertsonekin, esaterako— nahasten dituztenik.

Haur elebarraren prozesuarekin alderatuz, ez dirudi bi sistemen artean halako nahasketarik edo interferentzia azpimarragarririk suertatzen denik, nolabait itxaron zitekeen prozesua jarraitu baitute bi haurrek.

### 5.5. Objektu klitikoak

Gaztelaniaz ez dago euskaraz egiten den bezalako objektuarekiko komunztadurarik aditzean. Nolanahi ere, objektu hauek zuzenean aditz morfologian islatzen ez badira ere, beste zenbait elementuren bidez, objektuei dagozkien elementu klitikoaren bidez hain zuzen ere, ager daitezke esaldian, aditzaren ondo-ondoan.

Lehenago, 5.2. puntuan, argumentu objektuen inguruan hitz egin dugunean, objektuei dagozkien zenbait klitiko ikusi ditugu (130-131). Orain 14. taulan Mikel eta Peru<sup>12</sup> haur elebidunek gaztelaniaz gauzaturiko objektu klitikoaren kopuruak bildu ditugu, parez pare sailkatuz adinaren arabera.

14. taula: objektu klitikoaren ekoizpena (Mikel eta Peru)

	me	te	lo/la	le (leismo)	los/las
2;01			1 – 0		
2;02			6 – 0	1 – 0	
2;03			2 – 0		
2;04	2 – 0		4 – 0		
2;05		0 – 1	2 – 0	1 – 0	
2;06			2 – 0	3 – 0	
2;07	5 – 0		16 – 0	1 – 0	
2;08			5 – 0		1 – 0
2;09	6 – 2	1 – 1	8 – 1		
2;10	1 – 0	0 – 3	4 – 0		
2;11	6 – 0	1 – 0	15 – 0		
3;00	2 – 0		11 – 0		1 – 0
3;01		0 – 6			
3;02					
3;03	0 – 2	0 – 2	0 – 5		
3;04		0 – 4	0 – 1		0 – 1
3;05			0 – 2		0 – 1
3;06	0 – 1	0 – 4	0 – 8		

<sup>12</sup> Peru haurraren datuak Elosegiren (1998) lanetik hartu ditugu.

Mikelen ekoizpenetan objektu klitikoak 2;01etik aurrera gauzatzen direla ikus dezakegu (145); Perurenean, aldiz, hizkuntzaren arloan orobat beranduxeago datorrenez, 2;05etik aurrera (146). Edonola ere, nabari da sarritan klitikoa, hirugarren pertsonarena behintzat, gauzatu gabedanik uzten dutela zenbaitetan (147-148). Elosegik (1998) dioenez, Peruk %36 alditan uzten du objektu klitikoa eman gabe.

(145) yo lo pon(g)o aquí (M 2;01)

(146) no te veo (P 2;05)

(147) te (lo) tiro (un coche) (M 2;05)

(148) dame(la) (P 2;09)

Hirugarren pertsoneri dagozkien objektu klitikoak behar diren aldioro ez gauzatzea Euskal Herriko gaztelaniaren berezitasun jakina da (Landa 1993). Fenomeno honetan, haur gaztelaniadun elebakarrek jabeakuntza izan dezaketen ohiko eragozpenez gain, haur euskaldun-gaztelaniadun elebidunek entzuten duten gaztelaniaren ezaugarri hau aintzat hartu behar da.

Bestalde, leismoaren fenomeno ere ikus dezakegu, hots, *le* izenordain klitiko *lo/la* klitikoaren ordez erabiltzea (149). Joera hau oso zabalduta dago Euskal Herrian eta Espainiako beste hainbat eskualdetan (Fernández Ordóñez 1994).

(149) tú déjale (déjalo) ahí (M 2;06)

Dena dela, esan behar da objektu klitikoaren arazo hau eta beronen jabeakuntza eta garapena haur gaztelaniadun elebakarrengan, guk dakigula, ez dagoela nahiko genukeen bezain sakonki aztertuta behar bezalako alderaketa egin eta ondorio sendoagoak ateratzeko.

Badirudi elementu klitikoaren bidez objektuak markatzeko joera, subjektuarekiko aditz komunztaduraren ondotik gertatzen dela; gainera, objektu klitikoak beharrezkoak diren mota honetako esaldietan, hasierako uneetan batik bat, ez dira beti agertzen, zenbaitetan klitikorik gabe ematen baitituzte haurrek (150).

(150) eso (lo) come el gato (Al 2;04; iturria: Aguirre 1995)

Honelako adibideek argi erakusten digute gertakari hau ez dela haur euskaldun-gaztelaniadun elebidunen arazoa soilik, elebakarrengan ere klitikorik gabeko esaldiak aurki baitaitezke garapenaren hasierako une horietan gutxienez.

## 6. LABURBILKETA ETA ONDORIOAK

Lan honetan zehar jorratu diren gaiak honako hauek izan dira: izen sintagmei —bereziki izen sintagma subjektuei eta izen sintagma objektuei— dagokienez eta aditzei —hauen artean subjektuak eta objektuak aditzetan markatzeko morfemei— dagokienez.

1. Euskarazko datuak direla eta, izen sintagmei dagokienez, ikusi dugu sortzen zaigun lehenbiziko arazoa gramatika-markak noiz hasten diren erabakitzea dela, batez ere absolutiboarena, berez  $\emptyset$  marka baita, hots, kasurik neutroena, edo marka agerikorik gabekoa bederen, eta markarik baden edo ez esateko, edo kasurik baden edo ez erabakitzeke, bi elementuri erreparatu diegu: alde batetik, beste kasu marken edo deklinabide-atzizkien agerierari, horrelako atzizkiren bat (edo batzuk) agertzen baldin badira esan daiteke markarik gabekoa ere zinetako kasuzat hartu behar dela, haurrak beste kasuak ere erabiltzen dituelako; eta beste aldetik, absolutiboak bete ditzakeen bi funtzio sintaktiko nagusieneri erreparatu diegu, hau da, esaldiaren barnean subjektu funtzioa edo objektu funtzioa betetzen duten begiratu

da, eta bi funtzioak betetzen diren unean, edo hobeki esan, haurren ekoizpenetan absolutiboak bi funtzioak betetzen dituen unetik aurrera hitz egin daiteke benetakoa kasuaz edo absolutiboaz.

Arazo hori alde batera utziz, haurrek ikasi behar dute aditz iragangaitzen subjektuak eta aditz iragankorren objektuak NOR edo absolutiboaren kasu-marka (edo nahiago bada,  $\emptyset$  marka) eraman behar dutela. Jakina, horretaz gainera haurrek ikasi behar dute, kasu hau erabiltzen denean, agerian gelditzen diren markak edo ezaugarriak  $\emptyset$  kasu ezaugarriaren, -a artikulua eta -ak artikulua gehi pluralgilearen markez gain, zenbaitetan -ik partitibo atzikiarekin ere jantz daitezkeela sintagma horiek berak, besteak beste, esaldiak galderazkoak edo ezezkoak direnean.

Haurrek ikasi egin behar dute bai aditz iragankorren subjektuei eta bai aditz iragangaitz ezergatiboen subjektuei ere NOR edo ergatiboaren -k marka ezarri behar zaiela euskarazko gramatikak hala eskatzen duelako. Erakutsi dugu fonetikoki hots soil bat izatean, eta gainera hitz mugan, inguru fonetiko-fonologikoak garrantzi handia duela gauzatzeko garaian; horrek hainbat zailtasun dakarzkigu garapen prozesua deskribatu eta azaldu nahi dugun hizkuntz aztertzaileoi, haurrak ahoskatu duen edo ez ongi zehazteko, noiz den zinetako hutsa eta noiz ez erabakitzeko arazo handiak sortzen baititu. Hala ere, haurrek egiten dituzten autozuzenketek erakusten digute, gutxienez, gai direla morfema honen erabileraz jabetzeko, alegia, gai direla zerbait esan eta esaldia edo morfema (edo dena delakoa) amaitzean *gaiz -ki* eratu dutela ohartu eta zuzen emateko; horrek esan nahi du, gutxienez, nolabaiteko gramatikaren jabe badirela, eta batzuetan oso goiz garatzen dutela gaitasun hori. Aztertu ditugun zenbait haur oso goiz hasten dira horrelako autozuzenketak egiten, esaterako, Egoitz eta Oitz haurrengan -k ergatiboaren marka erabiltzen hasi eta, hurrenez hurren, hiru eta lau hilabetera aurkitu ditugu lehenbiziko autozuzenketa garbiak (53 eta 52 adibideak), horrek esan nahi du epe horretan —lehenagotik ez bada— ikasi dutela kasu marka hau behar bezala erabiltzen, edo gutxienez morfema horren erabilera barneratu dutelako seinale garbia da, nahiz eta oraindik zenbaitetan, batez ere arestian aipatu ditugun arrazoi fonetiko-fonologikoengatik, huts egin.

Izen sintagmen ildotik jarraituz, esan dezagun, azkenik, haurrek ikasi egin behar dutela objektu zuzenak, oro har, absolutiboan ipintzen badira ere, zenbait aditzen objektuak NORI kasuan edo datiboan joan behar dutela (*lanari* ekin, *zerbaiti* eutsi, *zerbaiti* sakatu,...). Puntu honek helduen ereduaren eta erabileraren ere nahiko arazo sortzen ditu, umeenean ez ezik.

Laburbilduz, eta eskema modura emanez, hona nolako bereizketa egiten den euskaraz eta, beraz, zer duten haurrek ikasi beharra, aditz motaren arabera eta izen sintagmetan agertu behar duten atzizkien arabera:

#### SUBJEKTUAK

- |   |                               |
|---|-------------------------------|
| 1.- Aditz iragangaitzen subjektuak              | ——> $\emptyset$ (ABSOLUTIBOA) |
| 2.- Aditz iragangaitzen subjektuak, zenbaitetan | ——> -ik (PARTITIBOA)          |
| 3.- Aditz iragangaitz ezergatiboen subjektuak   | ——> -k (ERGATIBOA)            |
| 4.- Aditz iragankorren subjektuak               | ——> -k (ERGATIBOA)            |

#### OBJEKTUAK

- |                            |                               |
|----------------------------|-------------------------------|
| 1.- Objektuak, oro har     | ——> $\emptyset$ (ABSOLUTIBOA) |
| 2.- Objektuak, zenbaitetan | ——> -ik (PARTITIBOA)          |
| 3.- Objektuak, zenbaitetan | ——> -i (DATIBOA)              |



Euskarazko aditzen eremuari dagokionez, ikusi dugu subjektuen ezaugarriak era desberdineraren islatzen direla aditz iragangaitzetan eta aditz iragankorretan; esan daiteke, oro har, aditz iragangaitzen subjektuen markak aurrizkien bidez agertzen direla (*n-, h-, g-, z-,...*), eta aditz iragankorren subjektuen ezaugarriak, aldiz, ez aurrizkien bidez baizik eta atzizkien bidez —eta batzuk gainera aurrekoengandik guztiz bestelakoak diren atzizkien bidez— gauzatzaren direla (*-t, -k/n, ø, -gu, -zu,...*).

Aditz iragankorren objektuen ezaugarriak ere modu desberdinetan markatzen dira aditzetan. Oro har, hainbat artizki edota atzizki erabiltzen dira aditz motaren eta euskalki motaren arabera. Aditz motaren arabera zenbaitetan *-tza-* pluralgilea erabiltzen da ugaritasuna zehazteko (*dakartzat, daramatzazu,...*), besteetan *-it-* erabiltzen da (*ditut, dituzu,...* *nor-nork* mota aditzekin; nafarreraz baita *nor-nori-nork* motako aditzekin ere: *ditiot, ditzit,...*), besteetan *-zki-* morfema pluralgilea (*nor-nori-nork* motako aditzetan: *dizkiot, dizkizut,...*), beste batzuetan *-z-* artizkia soilik (*dakarzkit, daramazkiot,...*). Euskalki motaren arabera, esandakoez gain, objektuak atzizkien bidez emanak ager daitezke, bizkaierako zenbait aditz mota kasurako (*dozuz, doguz,...*), e.a.

Beraz, aditzaren arloari dagokionez, haurrek ikasi behar dute subjektuen morfemak zein diren, nolakoak diren eta non —erroaren aurrean edo atzean— jarri behar diren, azaldu dugun bezala, jokabide diferentea baitute aditz iragangaitzek eta iragankorrek. Bestalde, subjektuekin jarraitutako jokabide bera segitu behar dute objektuei dagozkien ezaugarri morfologikoekin ere: zein diren ikasi, eta aditzen eta euskalkien arabera mota batekoa edo bestekoa ipini, aldagai horien arabera leku batean edo bestean jartzeko.

2. Gaztelaniazko datuak direla eta, aditz iragangaitzen eta aditz iragankorren subjektuak ez dira morfologikoki bereizten sintagmetan euskaraz ezberdintzen diren bezala, nominatibo kasu bakarrarekin aski dute aditz guztien subjektuak markatzeko, salbuespenak salbuespen. Beste aldetik, objektuen eremura igaroz, haurrek ikasi egin behar dute objektuak, oro har, preposiziorik gabe eman ohi direla, baina izena —edo izenak adierazten duena— biziduna baldin bada edo halakotzat hartzen bada a preposizioa erantsi behar zaiela. Objektuaren lekuenari dagokionez, gaineratu behar da joera nagusia —beti bezala, salbuespenak alde batera utziz— objektuak aditzaren ondotik jartzekoa dela, gaztelaniazko ordenarik arruntena eta neutroena (S)AO baita.

Aurreko ahapaldian aipatutako salbuespen horien barnean sartu behar ditugu subjektuekin eta objektuekin komunztadura egiten duten elementu klitikoak (lehenengoan artean, subjektuei dagozkienak: *me, te, se,...*; eta bigarrenen artean, objektuei dagozkienak: *me, te, le/la/lo,...*), hauetan egiten baita nominatiboaren eta akusatiboaren arteko nolabaiteko bereizketa (*yo/me, tú/te,...*).

Izen sintagmak diren bezainbatean, hortaz, laburbilduz honelako egoera genuke, oro har, gaztelaniaz:

#### SUBJEKTUAK

- |   |                |
|---|----------------|
| - Oro har —>                                | nominatibo     |
| - Zenbait aditzekin izenordain klitikoak —> | me, te, se,... |

#### OBJEKTUAK

- |                                       |                      |
|---------------------------------------|----------------------|
| - (S)AO ordena eta oro har —>         | preposiziorik gabe   |
| - Izen bizidunekin —>                 | a preposizioa        |
| - Objektuen izenordain klitikoetan —> | me, te, le/la/lo,... |

Aditzen alorrera igaroz, gaztelaniaz aditz iragankorrek eta iragangaitzek marka morfologiko berak dituzte subjektuak adierazteko (singularreko 1. pertsonarentzat -o, 2. pertsonarentzat -s, 3. pertsonarentzat  $\emptyset$ , pluraleko 1. arentzat -mos,...). Ez da esan beharrik objektuak ez direla —zuzenean bederen, euskarako objektuek komunztatzen duten moduan— aditzean islatzen.

3. Hizkuntza bateko datuak nahiz bestekoak llabur-labur azaldu ondoren antzeman daiteke aztertu ditugun unitateak guztiz modu ezberdinetara gauzatzen direla bai hizkuntza batean eta bai bestean. Helburu nagusia, hipotesien puntuan agertu dugun bezala, bi kodeak nahasten ziren edo ez ikustea zen. Horretarako bi hizkuntzetan guztiz ezberdinak diren bi unitate hartu ditugu aztergaitzat (subjektuen eta objektuen gauzatzea sintagmetan eta aditze-tan), bai eta haur elebakarren eta elebidunen ekoizpenak ere, erkaketak modu batera eta bestera egiteko; horrela, ikusi ahal izan dugu hizkuntza batekin eta bestearekin haur elebakarrek nolako jokabidea duten, eta haur elebidunek nolako garapen-bidea jarraitzen duten, hau da, bi hizkuntzen ezaugarriak nahasten dituzten edo ez ikasprozesuaren uneren batean, eta kode bat erabiltzen ari denean, hutsen bat agertuz gero, beste kodearen eraginari zor zaion edo ez.

Lanean zehar ahalegindu gara haurrek nola jabetzen diren azaltzen aztergaitzat hartutako arlo eta hizkuntza bakoitzari dagozkion hainbat eta hainbat adibide-erakusgarri emanez, bai elebakarrenak eta bai elebidunenak. Erreferentziatzat eduki ditugun haur elebakar euskaldunen datuak —bai eta haur euskara/gaztelania elebidunenak ere— gure proiektuaren barnean ikertutakoan ekoizpenetatik jasoak izan dira, gaztelaniadun elebakarrenak, aldiz, beste hainbat ikertzailek burututako lanetatik bildu ditugu, batez ere Hernández Pina (1984), López Ornat (1994) eta Aguirre (1995) adituek beren lanetan agertzen dituzten datuetan eta baieztatpenetan oinarritu gara.

Ikusitako datuen arabera, atera daitekeen lehenbiziko ondorioa honako hauxe da: ikas-kuntza mailakatu dela, bai elebakarretan eta bai elebidunetan. Mailakatze hau 4.3. puntuan ergatiboaren jabekuntzaz mintzo ginelarik azaldu dugu xehekiroago, eta oro har, esan daiteke egitura edo arau berri baten ezagutza hiru arotatik igarotzen dela: hasiera batean ez da egitura horren edo arau horren inolako arrastorik agertzen (ergatiboaren adibidea argigarria da), hurrengo aroan haurrak hasten dira ezaugarri morfologikoak erabiltzen, baina oraindik ere zenbaitetan huts egiten dute aurreko aroaren eraginez-edo, eta ibili ez-ibiliko une labur hori igarotzen dutenean hirugarren aroan sartzen dira, non arauaren jabe baitira eta helduen ereduaren arabera egiten baitute. Ikuspuntu honetatik ez dago inolako alderik elebakarren eta elebidunen artean, denak igarotzen baitira hiru aro hauetatik, batzuk goizxeago besteak beranduxeago hasiz, batzuk bigarren aroan denbora luzexeagoan edo motzagoan iraunez, baina denak igarotzen dira hiru aro horietatik. Hortaz, dauden ezberdintasunak gizabanakoaren garapenari, jokabideari eta inguruaren eraginari bakarrik dagozkio, ez besteri. Beste adibide bat ipintzearen, partitiboarena aipatuko dugu; Oitz haur elebakarrak eta Mikel haur elebidunak gehiago darabilte *-ik* partitibo-atzizkia Egoitz eta Bianditz elebakarrek baino, eta Peru haur elebidunak, guk aztertutako datuetan, ez du oraindik ibiltzen (kontuan izan beste haur guztiak baino beranduago hasten dela hizkuntzaren maila guztiak garatzen, baina seguru beranduagoko datuetan agertuko dela morfema hau). Adibide honekin agerian jarri nahi dugu desberdintasunak, izatekotan, ez daudela elebakar eta elebidunen artean, jokabide indibidualetan baizik.

Bigarren ondorio bat azpimarratzekotan esango genuke, subjektuak eta objektuak sintagmetan markatzeko moduak txoiz ezberdinak izanik euskaraz eta gaztelaniaz, ez dugula hizkuntza batetik besterako arau nahasketarik aurkitu. Euskaraz subjektuak markatzeko absoluti-boa (honen barnean sartuko genuke *-ik* partitibo atzizkia ere) eta ergatiboa erabiltzen dira,

eta objektuak markatzeko, berriz, absolutiboa (partitiboa barne) eta zenbaitetan datiboa ere bai; gaztelaniaz ez da horrelako bereizketarik egiten, subjektuarekin eta objektuarekin komunztatzen duten izenordain klitikoetan izan ezik; zenbaitetan, ordea, aitatu bezala, izen bizi-dunak direnean objektuek a preposizioa hartzen dute, baina ez dirudi gaztelaniazko preposizioaren erabilera denik objektuak eta subjektuak bereizteko bide nagusia edo behinena; alde honetatik, joera handiagoa dago, oro har, objektuak aditzaren ondotik emateko inolako preposiziorik gabe, hauek beranduago agertzen baitira. Hori horrela izanik, hortaz, ez dugu kode bateraketa edo bi hizkuntzetako arauen nahasketa adieraz dezakeen aztarnarik aurkitu haur elebidunen ekoizpenetan; dauden hutsak, edo huts motak, elebakarrengan ere ediren baitaitezke.

Datu berak oinarritzat hartuz, atera daitezkeen hirugarren ondorioa aditzaren arloari hertsiki lotua dago. Arlo honetan ere subjektuen eta objektuen morfemak aditzetan emateko bi hizkuntzek erabiltzen dituzten sistemak arras ezberdinak dira, eta ez dugu kode baten edo bestearen eragin berezirik ikusi haur elebidunen hizkuntza bateko nahiz besteko ekoizpenetan. Horrela, baieztza dezakegu haurrek ez dituztela nahasten aditz iragankorretan edo iragangaitzetan ez aditz-morfema batzuk eta ez besteak, eta hasiera hasieratik ongi eta zuzen ematen dituztela uanean-uean erabiltzen ari diren kodearen arauak. Elebidunen emanaldietan ediren daitezkeen salbuespenak edota salbuespen motak —batez ere pertsona komunztadurari dagozkionak— elebakarren ekoizpenetan ere aurki daitezke, gehienbat lehen aipatu dugun ikaskuntza mailakatu horren ondorioz eginikoak dira eta; horrek esan nahi du salbuespen horiek sistema horren barneko arauak erabiliz sortutako aditzak edo forma berriak direla, baina ez bi sistemen arauen nahasketaren ondorioz sortutakoak. Honen adibide garbia euskarazko iraganaldiko zenbait aditz forma eratzeko modua dugu. Aditz hauetan orainaldiko formei *-(e)n* iraganaldiko atzizkia eransten diete haurrek lehenaldia adierazteko, baina ikusi dugu elebakarrek ere antzeko jokabidea dutela zenbaitetan; konturatu, hortaz, haur elebidunak —eta elebakarrak ere bai— sistemaren barneko arauz baliatu direla horrelako formak osatzeko eta ez dutela, horratik, beste kodearen arau edo morfemetara jo. Alde honetatik, azpimarratzekoa da jokaera eta ikasprozesu berdina jarraitzen dutela bai elebakarrek eta bai elebidunek. Ezin, beraz, hutsen edo forma berri hauen zergatiak bigarren hizkuntzaren eraginari egotzi.

4. Bukatzeko, laugarren eta azken ondorio nagusi gisa, esan behar dugu guk aztertu ditugun haur elebidunen ekoizpenetan eta arakatu ditugun bi unitate hauetan ez direla bi sistemetako arauak nahasten, eta beraz, bi kodeak beregainki garatzen direla defendatzen duten autoreekin —Padilla & Liebman (1975), Slobin (1985), Meisel (1989, 1994), De Houwer (1990, 1995), e.a.ekin— ados gaudela, izan ere, hemen azaltzen diren elebakarren datuak eta gaztelania/euskara elebidunen datuak ikusi ondoren ez dago esaterik ikasprozesuaren uneren batean halako nahasketarik badenik, ez baitugu nahasketa horren (edo nahasketa hori gertatu dela frogatuko lukeen) arrastorik ediren. Beraz, lehen hipotesietan uste bezala eman duguna orain ondorio bezala har dezakegu: kode bateraketarik ez!

## BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE C. (1995), *La adquisición de las categorías gramaticales del español*, Universidad Autónoma de Madrid, Doktorego tesia.
- BARREÑA A. (1995), *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- BARREÑA A. (1997a), "Desarrollo diferenciado de sistemas gramaticales en un niño vasco-español bilingüe", in GLASS W. R. & PEREZ-LEROUX A. T. (ed.), *Contemporary Perspectives on the Acquisition of Spanish*, Cascadilla Press & Pennsylvania State University.
- BARREÑA A. (1997b), "Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa", *Fontes Linguae Vasconum*, 75, 173-217.
- BARREÑA A. & ALMGREN M. (1999), "Jabekuntza elebiduna eta kode-bereizketa: subjektuen eta objektuen markak", *Uztaro* 29, 61-94.
- BARREÑA A. & IDIAZABAL I. (1997), "Diferenciación bilingüe precoz de códigos: los objetos en español y euskera", in DIAZ L. & PEREZ C. (ed.) *Views on the acquisition and use of a second language- Proceedings of Eurosla'7*, Barcelona, Universitat Pompeu Fabra, 157-170.
- BROWN, R. (1973), *A first language. The early stages*, Cambridge, Harvard University Press.
- DE HOUWER A. (1990), *The Acquisition of Two Languages from Birth: a Case Study*, Cambridge, Cambridge University Press.
- DE HOUWER A. (1995), "Bilingual language acquisition", in FLETCHER P. & MACWHINNEY B. (eds.), *The Handbook of Child Language*, London, Blackwell, 219-250.
- DIXON R. M. W. (1994), *Ergativity*, Cambridge, Cambridge University Press.
- ELORDUI A. (1995), *Hizkuntz heriotza eta aldaketa morfologikoa: Hegomendebaldeko bizkaieraren kasua*, Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ELOSEGI K. (1998), *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan Bilbo*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- EZEIZABARRENA M. J. (1996), *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- EZEIZABARRENA M. J. & LARRAÑAGA P. (1996), "Ergativity in Basque: a problem for language acquisition?", *Linguistics*, 34, 955-991.
- FERNÁNDEZ ORDÓÑEZ I. (1994), "Isoglosas internas del castellano. El sistema referencial del pronombre átono de tercera persona", *Revista de Filología Española*, 74, 71-125.
- HERNANDEZ PINA F. (1984), *Teorías psicopsicolingüísticas y su aplicación al español como lengua materna*, Madrid, Siglo XXI.
- IDIAZABAL I. (1991), "Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batatz besteko luzera (EBBL) edo MLU", in LAKARRA J.A. (ed.), *Memoriae Mitxelena Magistri Sacrum*, Donostia, Gipuzkoako Foru Diputazioa, ASJU gehigarria, 1289-1295.
- IDIAZABAL I. (1995). "First Stages in the Acquisition of Noun Phrase Determiners by a Basque-Spanish Bilingual Child", in SILVA-CORVALAN C. (ed.), *Spanish in Bilingual Context*, Washington, Georgetown University Press, 260-278.
- LAFITTE P. (1944), *Grammaire basque*, Donostia, Elkar (1979ko berrargitarapena).
- LANDA A & FRANCO J. (1992), "Objetos nulos en el castellano del País Vasco: dos status para dos interpretaciones", *ASJU*, XXVI, 777-792.
- LANDA A. (1993), "Los objetos nulos determinados del español del País Vasco", *Lingüística (ALFAL)*, 5, 131-146.
- LEVIN B. C. (1983), *On the Nature of Ergativity*, PhD Dissertation, Massachusetts Institute of Technology.

- LOPEZ ORNAT S. (1994), *La adquisición de la lengua española*, Madrid, S. XXI.
- MAHLAU A. (1994), "El proyecto BUSDE: Corpus y metodología" in MEISEL J. M. (ed.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt am Main, Vervuert, 21-34.
- MEISEL J. (1989), "Early Differentiation of languages in bilingual children", in HYLLENSTAN K. & OBLER L. (eds.) *Bilingualism across the Lifespan: Aspects of Acquisition, Maturity and Loss*, Cambridge, Cambridge Univ. Press, 13-40.
- MEISEL J. (1994), "La adquisición de la negación en euskera y castellano. Sobre la separación temprana de sistemas gramaticales por niños bilingües", in MEISEL J. (ed.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt an Main, Vervuert, 151-180.
- MEISEL J. & MAHLAU A. (1988), "La adquisición simultánea de dos primeras lenguas. Discusión general e implicaciones para el estudio del bilingüismo en Euskadi", *II Euskal Mundu Biltzarra*, Donostia, 5-34.
- ORTIZ DE URBINA J. (1988), *Some Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- PADILLA A. M. & LIEBMAN A. S. (1975), "Language acquisition in the bilingual child", *Bilingual Review*, 2, 34-55.
- PADILLA A. M. & LINDHLOM K. (1978), "Language mixing in bilingual children", *Journal of Child Language*, 5, 327-335.
- REDLINGER W. & PARK T. (1980), "Language mixing in young bilinguals", *Journal of Child Language*, 7, 337-352.
- SARASOLA I. (1996), *Euskal Hiztegia*, Donostia, Kutxa fundazioa.
- SLOBIN D. (1985) (ed), *The Cross-linguistic Study of Language Acquisition. Volume I: The Data. Volume II: Theoretical Issues*, Hillsdale, N. J., Erlbaum
- TAESCHNER T. (1983), *The Sun is Feminine: A Study of Language Acquisition in Bilingual Children*, Berlin, Springer-Verlag.
- VILA I. & CORTES M. (1991), "Aspectos relativos al desarrollo lexical y morfosintáctico de los bilingües familiares" in IDIAZABAL I. (ed.), *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz Jabekuntza Haur Elebidun eta Elebakarretan*, Donostia, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 109-127
- VOLTERRA V. & TAESCHNER T. (1978), "The acquisition of language by bilingual children", *Journal of Child Language*, 5, 311-326.
- ZUBIRI J. J. (1997), *Izen Sintagmaren determinazioa eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte (Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena)*, Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.